

Euskarazko oharmen-aditzen osagarrietako perpau jokatugabeak

Iñigo Arteatx Uriarte
EHU

Felser-ek (1998) ingelesezko oharmen-aditzen osagarrietatik abiatuta, Aspektu Sintagman eta igoeran oinarritutako azterbidea proposatu zuen. Aurreragoko lan batean (Felser, 1999), proposamen hori zenbait hizkuntza germaniar eta erromantzetara zabaldu zuen. Artikulu honetan, saiatuko naiz erakusten Felser-en azterbideak azalpen egokia eskaintzen diela euskarazko oharmen-aditzen osagarrietan antzematen ditugun ezaugarriei. Bestalde, azterbide horrek agerian utziko du euskarazko oharmen-aditzen osagarrietan ageri den *-t(z)en* marka Aspektu Sintagmaren buru bezala aztertzearen beharra.

Felser (1998) proposed that english Perception Verb Complements are Aspect Phrases headed by *-ing* morpheme, and that embedded subjects move via raising to matrix object position. In further work, Felser (1999) extended her proposal to some germanic and Romance languages. This paper tries to show that such an analysis accounts for the facts behaved in basque Perception Verb Complements and described in the first part of the paper. On the other hand, we will see that *-t(z)en* that appears in these structures is an aspect morpheme heading the Aspect Phrase.

0. Sarrera*

Artikulu honetan oharmen-aditzen osagarrietan agertzen diren *-t(z)en* morfe-madun egitura jokatu-gabeak Aspektu Sintagmak direla erakutsiko dut, horretarako Felser-ek (1998, 1999) proposatutako bidea euskarara egokituz. Oharmen-aditzen osagarriak edo PVC (*Perception Verb Complement*) egiturak aipatzean oharmena-rekin nolabait lotuta dauden aditzen (*ikus*i, *entzun*, *sumatu*, *harrapatu*, *aurkitu*...)¹ osagarri-posizioan dauden eta *-t(z)en* morfema buru duten egitura konplexuak hartzen ditugu aintzat²:

1. a. Jonek [_{PVC} Miren pianoa jotzen] ikusi du.
- b. Irakasleak [_{PVC} Mikel azterketa kopiatzen] harrapatu du.

Artikulu honetako lehenengo atalean zehar ikusiko dugun legez, egitura hauek oso ezaugarri bereziak dituzte; orain arte oharmen-aditzen osagarrien egiturarako aurkeztutako proposamen gehienek kale egin dute ezaugarri horiek azaltzean, hein handiagoan edo txikiagoan. Azterbide horietatik esanguratsuenak eta haien gabeziak bigarren atalean azalduko ditut. Hirugarren atalean erakutsiko dut Felser-ek proposatutako Aspektu Sintagmaren azterbideak azalpen egokia eskaintzen digula beste proposamenek argitu ezin dituzten ezaugarrietarako. Azkenik, lau-garren atalean artikuluan zehar azalduko ondorio behinenak laburbilduko ditut.

1. PVC egituren ezaugarriak

Sarreran esan dudan moduan, oharmen-aditzen osagarriek ezaugarri bereziak dituzte. Horietako asko Akmajian-en (1977) eta Felser-en (1998, 1999) lanetan deskribatzen zaizkigu. Hemen jasoko ditudan ezaugarri batzuk haien lanetan agertzen dira; beste batzuk, berriz, euskararen berezitasunei dagozkie. Bestalde, artikulu honetan, ingelesaren azterketan deskribatutako ezaugarrietatik ez ditut jaso euskaratik urrun gelditzen direnak³.

1.1. Osotasuna

PVC egiturek sintagma bakarra osatzen dutela behin baino gehiagotan aipatu izan dute zenbait egilek (Akmajian, 1977; Felser, 1998, 1999), eta osotasun horren aldeko argudioak ere eskaini izan dizkigute. Horiek indartzera datozen beste

* Lan hau EHUren UPV05/03 ikerketa-proiektuaren eta Ikerkuntza Sareak sortzeko Eusko Jaurilaritzak 2006an ateratako deialdian emandako diru-laguntzen babesean egin da. Eskerrak eman nahi dizkiet Pablo Albizu, Idurre Alonso, Arantzazu Elordieta eta bereziki Xabier Artiagoitiari egindako ohar eta iradokizunengatik, eta baita 2007an EHUren udako ikastaroetako parte-hartzaileei. Ez dago esan beharrik hemen agertzen den edozein akatsen erantzule bakarra neu naizela.

1. Zerrenda luzeagoa in A. Eguzkitza (1985).

2. Hortaz, oharmen-aditzen osagarriez ari garenean, ez ditugu kontuan hartuko ez (ia) adibidekoa bezalako DS/IS soilak, ez *-ela* morfema buru duten Konplementatzaile Sintagmadun egiturak —(ib) adibidea—:

i. a. Jonek [_{DS} zaratak] entzun ditu.

b. Jonek [_{Konp-S} bihar euria egingo duela] entzun du.

3. Esaterako, Felser-ek (1999) behin baino gehiagotan aipatzen duen ezaugarria da *Pasibizatzearen Gaineko Murrizketa* infinitibozko forma hartzen duten PVC egituretan:

i. *John was *seen leave*.

Euskaraz, ordea, ez dugu ez infinitibozko formadun PVC egiturarik, ez perpaus bakarreko egitura pasibo argirik.

batzuk NZ galderen erantzunak (2), fokalizatutako elementuak (3) eta *zera*, *zeretik*, *zertu* eta antzeko partikulak (4) ditugu:

NZ galderak:

2. a. *Zer ikusi duzu? [katua][bostetan].
- b. Zer ikusi duzu? [katua].

Fokua:

3. a. *Guk [JON] [GAUR] eraman dugu, eta ez [MIREN] [ATZO].
- b. Guk Jon [GAUR] eraman dugu, eta ez Miren [ATZO].

Zera partikula:

4. a. *Zera ikusi dut: [Mikel][bostetan].
- b. Zera ikusi dut: [Mikel].
- c. *Jon zerean aurkitu dut: [nekatuta][bide-bazterrean].
- d. Jon zerean aurkitu dut: [bide-bazterrean].

Ikusi berri ditugun adibideetan ezin da osagaia ez den sintagmarik agertu erantzun, foku edo gehigarri modura. Hala ere, oharmen-aditzen osagarriak bai agertu ahal zaizkigu aipatutako hiru testuinguruetan:

5. a. Zer ikusi duzu? [Miren pianoa jotzen].
- b. Guk [JONE IRAKURTZEN] ikusi dugu, eta ez [MIKEL PIANOA JOTZEN].
- c. Zera ikusi dut: [Jone liburua irakurtzen].

Ikusi dugun moduan, oharmen-aditzen osagarriek erakusten duten osotasuna nabarmenago ageri zaigu aztertzen ari garen egitura ingurune isolatuan agertzen denean. Gertaera horiek guztiek PVC egituretako subjektua eta predikatua biltzen dituen osagai bakarraren aldeko froga argia eskaintzen digute.

1.2. Zatigarritasuna

Ikusi dugun legez, oharmen-aditzen osagarri-posizioan agertzen zaigun egiturak osotasuna du, baina gehienetan subjektua erraz bana daiteke menderatutako egiturako gainerako elementuetatik:

6. a. [Jon lagunekin hitz egiten] ikusi dut.
- b. [Jon] ikusi dut [lagunekin hitz egiten]⁴.

Hortaz, oharmen-aditzen osagarrietarako proposatzen dugun egiturak gai izan beharko du azalpen egokia eskaintzeko bai osotasunari, bai zatigarritasunari.

1.3. Kasu ergatiboaren gaineko murrizketa

Ingeleseko PVC egituren azterketetan mendeko subjektuak jasotzen duen kasu akusatiboa aipatzen da (*I saw him/*he reading a book*). Kasu hori aditzaren osagarriarekin lotu ohi da, eta ez subjektuarekin. Beste horrenbeste gertatzen

4. Hurrenkera hauek biak direla-eta, deigarria da zenbait hiztunentzat egitura neutroa banatu gabeko PVC egitura jasotzen duena izatea, eta beste batzuentzat —neu barne—, banatutako PVC egituraduna. Nolanahi ere, gertaera horren azalpena lan honen mugetatik kanpo gelditzen da.

zaigu euskaraz kasu ergatiboa jaso ohi duten argumentuekin ere: PVC egituretako subjektuek kasu absolutiboa jasotzen dute, dena delakoa izanda ere mendeko argumentu-sarea⁵:

7. a. *Zuk katuek saguak harrapatzen ikusi dituzu.
- b. Zuk katua saguak harrapatzen ikusi duzu.

Bestalde, perpaus nagusian ezeztapena agertzen bazaigu, posible da PVC egiturako subjektuak kasu partitiboa jasotzea:

8. Zuk ez duzu katua/katurik saguak harrapatzen ikusi⁶.

Bestelako testuinguruetan ere kasu partitiboa absolutuarekiko alternantzia agertu ohi zaigu⁷. Hortaz, ezezko perpausetan partitiboa agertzea baieztekoetan absolutiboa agertzearekin lot dezakegu. Labur esanda, PVC egiturako subjektuak kasu absolutiboa/partitiboa jasotzen du, baina ezin du kasu ergatiborik azaldu.

1.4. Subjektu isila

Di Tullio-k (1998: 203) ohartarazten duen moduan, posible da ageriko subjekturik ez duen egitura izatea oharmen-aditzen osagarrian:

9. a. Inoiz ez dut ikusi botila horren azkar husten.
 - a₁. Inoiz ez dut ikusi botila_{subj} horren azkar husten.
 - a₂. Inoiz ez dut ikusi *pro*_{subj} botila_{obj} horren azkar husten.
- b. Ikusi duzu inoiz ehun kilo esku batez altxatzen?
 - b₁. *Ikusi duzu inoiz [ehun kilo]_{subj} esku batez altxatzen?
 - b₂. Ikusi duzu inoiz *pro*_{subj} [ehun kilo]_{obj} esku batez altxatzen?

(9a) adibidea anbigua da eta berdin isla dezake botila hustu egin dela (9a₁) zein norbaitek hustu duela (9a₂); anbiguotasun horrek berak iradokitzen du subjektu isila posible dela. Bestalde, (9b) adibidean ez dugu inolako anbiguotasunik, eta subjektu isila duen egitura bezala interpretatu behar da ezinbestez.

1.5. Komunztadura-harremanak

Komunztadura-harremanetan, PVC egiturako subjektua perpaus nagusian kokatuta dagoela iradokitzen duen datu bat aurki dezakegu. Akmajian-en (1977) deskribaketan agertzen den legez, ingelesezko PVC egitura pasiboetako subjektuak

5. Bestalde, (zenbait euskalkitan, behinik behin) posible da PVC egituraren baitako subjektuak kasu ergatiboa erkatzea, baldin eta izenordain indartua bada, eta aditzaren aurrean agertzen bada (*bakarrik* adizlagunarekin ere ager daiteke gunen horretan):

- a. Sua *zeuk* egiten ikusi zaitut.
- b. Lan guztia *berak bakarrik* egiten ikusi dut.
- c. Ikusi zaitut *zuhaurk* lan egiten. (Oyharçabal, 2002: 231)

Oyharçabalek dioenez, (c) adibideko izenordain indartuak *bakarrik* adizlagunaren esanahia du. Nik emandako adibideetan (b)-k du Oyharçabalek aipatzen duen zentzua; (a) adibideko izenordain indartuak, berriz, *bakarrik* zein *ez beste inork* adieraz lezake. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da ezaugarri hau izenordain indartuetara mugatzen dela, eta haiei lotutako berezitasun bezala aztertu behar dela, ez oharmen-aditzen osagarrien ezaugarri orokor bezala.

6. Kasu honetan ere, (6b) adibidean bezala, neutroagoa da hiztun askorentzat *Zuk ez duzu katua/katurik ikusi saguak harrapatzen* hitz-hurrenkera.

komunztadura egiten du perpaus nagusiko aditzarekin. Euskarazko aditzaren morfoloziak aukera ematen digu ikusteko pasiboak ez diren egituretan ere badela komunztadura-harreman hori:

10. a. Katua etxera sartzen ikusi dut.
- b. Katuak etxera sartzen ikusi {ditut/*dut}.
- c. Zu etxera sartzen ikusi {zaitut/*dut}.

Komunztadura-harreman horien berezitasuna PVC egituren koordinazioan ere islatzen da. Izan ere, PVC egituren koordinazioa egitura horietako subjektuen koordinazio bezala agertzen zaigu perpaus nagusiko aditzean:

11. a. [Jon sagarra jaten] eta [Miren igeri egiten] ikusi ditut.
- b. [Jon sagarra jaten] eta [zu igeri egiten] ikusi zaituztet.
- c. [Zu sagarra jaten] eta [ni igeri egiten] ikusi gaituzte.

Zenbait kasutan, *-t(z)en* morfemadun osagarriak hartzen dituzten aditz batzuekin (*ari, saiatu...*) berregituraketa proposatu izan da (Hualde eta Ortiz de Urbina, 1987) edota urruneko komunztadura (Etxepare, 2006). Hala ere, oharmen-aditzen kasuan, aipatutako beste aditz horietan ez bezala, komunztadura ezinbestekoa da hitzun guztientzat (nik dakidala, behintzat).

1.6. Anafora-harremanak

Felser-ek (1999: 24) azaltzen duen bezala, mendeko aditzaren osagarriko anaforak PVC egiturako subjektuari egiten dio erreferentzia, eta ez perpaus nagusiko subjektuari (12a, b). Beste horrenbeste gertatzen da hiru argumentudun egituretako datiboarekin ere (12c, d):

12. a. Mikelek_j Jon_i [bere burua]_{i/j} gorai patzen entzun du.
- b. Zuk Jon {bere burua / *zeure burua} gorai patzen entzun duzu.
- c. Mikelek_j Jon_i [bere buruari]_{i/j} hitz egiten entzun du.
- d. Zuk Jon {bere buruari / *zeure buruari} hitz egiten entzun duzu.

Emandako datuak kontuan izanik egin dezakegun aurreikuspen bat da perpaus nagusiko subjektua aitzindari egokia izango dela PVC egiturako posizio horietan agertzen diren izenordainentzat⁸. Ondoko adibideek erakusten digute gure aurreikuspena bete egiten dela:

13. a. Mikelek_j Jon_i bera_{i/j} gorai patzen entzun du.
- b. Zuk Jon {zeu / *bera} gorai patzen entzun duzu.
- c. Mikelek_j Jon_i berari_{i/j} hitz egiten entzun du.
- d. Zuk Jon {zeuri / *berari} hitz egiten entzun duzu.

7. Hau da, partitiboa ez da agertzen ergatiboa agertu ohi den testuinguruetan, baina posible da subjektu-posizioan agertzea:

- | | | |
|---------------------------|---|----------------------------------|
| a. Katua etorri da. | → | a'. Ez da katurik etorri. |
| b. Urak irakin du. | → | b'. *Ez du urik irakin. |
| c. Katuak sagua ikusi du. | → | c'. Katuak ez du sagurik ikusi. |
| | | c''. *Katurik ez du sagua ikusi. |

8. Ikusi Artiagoitia (2000: 309-312).

Datu horiei beste hau ere gehitu behar diegu: perpaus nagusiko subjektua aitzindari egokia da PVC egiturako subjektuarentzat. Hau da, PVC egiturako subjektuan anafora bihurkaria badugu, perpaus nagusiko subjektuak uztar dezake; baina mendeko subjektua izenordaina bada, ez du onartzen perpaus nagusiko subjektuak uztartzerik. Hona pare bat adibide:

14. a. Mikelek_j [bere burua]_{i/j} gezurrak asmatzen harrapatu du.
- b. Mikelek_j bera_{i/j} gezurrak asmatzen harrapatu du.

Laburbilduz, perpaus nagusiko subjektuaren eta mendekoaren artean ez dago anafora oztopa dezakeen hesirik; ezta mendeko subjektuaren eta mendeko gainerako argumentuen artean ere. Hitz gutxitan: PVCko subjektuak egiazko subjektu gisa jokatzeko du PVC barruko osagaietarako, baina perpaus nagusiko osagarri gisa jokatzeko du bertako subjektuarekin.

1.7. Ezeztapena

Felser-ek (1999: 179), Zanuttini (1991) aipatuz, ezeztapen mota bi bereizten ditu: ezeztapena perpaus nagusian agertzen zaigunean *perpausaren ezeztapena* dugu (15a); eta ezeztapena PVC egituraren baitan dagoenean, *predikatuaren ezeztapena* (15b):

15. a. Ez nuen Miren aukitit altxatzen ikusi.
- b. Miren aukitit ez altxatzen ikusi nuen.

Felser-ek bereizketa garbia egiten du bataren eta bestearen artean, predikatuaren ezeztapena bera ekintza bezala ulertu behar dela argudiatuz. Horrenbestez, (15b) adibidearen esanahia ez litzateke (15a) izango, honakoa baizik:

16. Miren eserita gelditzen ikusi nuen.

PVC egituretako ezeztapenarekin lotuta, kontuan hartu behar ditugu Ezezko Polaritatedun Elementuak (*inor*, *ezer*). Ondoko adibideetan ikusten dugun bezala, oharmen-aditzen osagarrietako ezeztapenak zilegi egiten ditu Ezezko Polaritatedun Elementuak PVC egituren baitan⁹:

17. a. Jon *ezer* ez egiten harrapatu dut.
- b. Sarri ikusi izan dugu Jon *inori* kasurik ez egiten.

Perpaus nagusian kokatutako ezeztapenak ere zilegi egiten du PVC egituraren baitan Ezezko Polaritatedun Elementuak aurkitzea:

18. a. Jon ez dut *ezer* egiten harrapatu.
- b. Jon ez dut ikusi *inori* kasurik egiten.

Aldiz, PVC egituren subjektuan kokatutako Ezezko Polaritatedun Elementuetan ez dugu jokabide bera aurkitzen: perpaus nagusiko ezeztapenarekin ez dugu eragozpenik (19a), baina PVC egituraren baitakoak ez du zilegitzen Ezezko

9. Ezezko Polaritatedun Elementuak aztertzean ezeztapenarekin lotutakoak baino ez ditut hartu aintzat; hau da, alde batera utzi ditut galderetan, baldintzetan edota balio enfatikoz erabilitakoak.

Polaritatedun subjektua (19b); ez, behintzat, (17)-ko adibideetan ikusten genuen gardentasunarekin:

19. a. Ez dut *inor* ikusi hemendik pasatzen.
- b. ??/* Hemendik *inor* ez pasatzen ikusi dut¹⁰.
- c. Ez dut *inor* entzun gezurrak esaten.
- d. **Inor* gezurrak ez esaten entzun dut.

Laburbilduz, PVC egituretan Ezezo Polaritatedun subjektua (modu garbian) zilegi dezakeen ezeztapen bakarra perpaus nagusian kokatutakoa da. Mendeko egituretan kokatutako ezeztapenak subjektua ez beste Ezezo Polaritatedun Elementu guztiak zilegi ditzake.

Azkenik, PVC egituretako ezeztapenaren beste ezaugarri bat da beti agertzen zaigula aditzaren ezkerretara; ezin dugu bien artean beste inolako elementurik txertatu:

20. a. Jon ezer *ez egiten* harrapatu dut.
- b. *Jon *ez ezer egiten* harrapatu dut.
- c. Jon ariketak *ez egiten* harrapatu dut.
- d. *Jon *ez ariketak egiten* harrapatu dut.
- e. Gezurrik *ez esaten* ikusten zaitudanean izango naiz berriro zure laguna.
- f. **Ez* gezurrik *esaten* ikusten zaitudanean izango naiz berriro zure laguna.
- g. Oraindik *ezer ez egiten* ikusi nau arduradunak.
- h. **Ezer ez* oraindik *egiten* ikusi nau arduradunak.

Beraz, oharmen-aditzen osagarrietan ez dugu perpaus mailako ezeztapenik. Agertzen zaigun ezeztapena beti azaltzen da aditzari ezkerretik atxikita, eta gai da PVC egituretako edozein Ezezo Polaritatedun Elementu zilegitzeko, subjektua salbu.

1.8. NZ galderak

Ondoko adibideetan ikusten den moduan, PVC egiturek ez dute eragozten NZ hitzen mugimendua perpaus nagusiko [Espez, Konp'] posizioa¹¹:

21. a. Nor_i ikusi duzu zuk t_i pianoa jotzen?
- b. Nora_i ikusi duzu zuk Miren t_i joaten?

Hala ere, ematen du ez dela gauza bera gertatzen PVC egiturako aditzaren osagarriko NZ hitzekin, nahiz eta murrizketa ez izan maila berekoa beti: horrela,

10. Halako adibideak gramatikaltzat edo zalantzazkotzat jotzen dituzten hitzunik ere badiren arren, beste batzuek guztiz ezgramatikaltzat dituzte, nahiz eta hitzun horiek ez izan arazorik (17)-ko adibideetan emandakoak onartzeko. Horregatik, eta (19b) bezalako perpausen marjinaltasunagatik, ezgramatikaltzat jo ditut, azterketa sakonagoak lan honen helburua eta mugak gainditzen ditu eta.

11. Felsler-ek (1999: 70) aipatzen duen moduan, oharmen-aditzen osagarrietatik NZ hitzak atera ahal izateak baztertu egiten du egitura hauek adjunktu legez aztertzeko aukera.

ateratzea okerragoa da anbiguotasunerako bide ematen duenean, hau da, ateratako NZ hitza aditzaren kanpo-argumentu posiziotik atera dela interpreta daitekeenean (ikusi (22b) adibidea):

22. a. $??Zer_i$ ikusi duzu zuk Jon t_i irakurtzen?
b. $??/*Nor_i$ ikusi duzu zuk Jon t_i jotzen?
(vs Nor_i ikusi duzu zuk t_i Jon jotzen?)¹²

Hortaz, ematen du mendeko osagarrian dagoen NZ hitza ateratzearen gaineko murrizketa interpretagarritasunarekin eta kasu absolutiboa jasotzen duten argumentu bi izatearekin dagoela lotuta. Ondorioz, zalantzazko perpausak edota anbiguotasunak saihesteko, mendeko aditzaren osagarriko NZ hitzek *pied-pipinga* eragin ohi dute perpaus nagusiko [Espez, Konp'] posiziora mugitzean:

23. [Nor jotzen]_i ikusi duzu Jon t_i ?

Deigarria da, dena den, (23) adibidean non gelditzen den mendeko egiturako subjektua (*Jon*): *pied-piping* mugimendutik kanpo, hain zuzen. Beste horrenbeste gertatzen da *pied-piping* mugimendua mendeko egiturako beste edozein posiziotik eragiten duenean ere:

24. a. [Nora joaten]_i ikusi duzu zuk Miren t_i ?
b. [Norekin joaten]_i ikusi duzu zuk Jon t_i ?
c. [Dirua nori ematen]_i ikusi duzu zuk Jon t_i ?

Are gehiago: ondoko adibideek erakusten duten bezala, nahitaezkoa da mendeko subjektua *pied-piping*etik kanpo gelditzea perpausa gramatikala izan dadin¹³:

25. a. $*[Jon\ nor\ jotzen]_i$ ikusi duzu t_i ?
b. $*[Miren\ nora\ joaten]_i$ ikusi duzu zuk t_i ?
c. $*[Jon\ norekin\ joaten]_i$ ikusi duzu zuk t_i ?
d. $*[Jon\ dirua\ nori\ ematen]_i$ ikusi duzu zuk t_i ?

Azkenik, oso deigarria da oharmen-aditzaren osagarriko subjektuak berak ezin eragin izatea *pied-piping* mugimendurik mendeko egituran:

26. a. $*[Nor\ pianoa\ jotzen]_i$ ikusi duzu zuk t_i ?
b. Nor_i ikusi duzu zuk t_i pianoa jotzen?

Datu hauek iradokitzen dute NZ-mugimenduak gertatzen direnerako mendeko subjektua PVC egituratik banatu dela.

12. Hiztun baitzuentzat PVC egituraren osagarritik ateratako NZ hitzek gainerakoek baino perpaus traketsagoak eragitearen arrazoia hurbiltasun-efektuan egon daiteke, kontuan hartuta subjektuak eta objektuak, biek jasotzen dutela kasu absolutiboa. Hurbiltasun-efektua bera DS barruko osagaietarako behin baino gehiagotan deskribatu izan den fenomeno da dugu (cf. Torrego, 1987; Ormazabal, 1992; Ticio, 2006).

13. Nahiz eta adibideotan agertzen den hitz-hurrenkera posible izan baldin eta mendeko egiturako subjektua topiko-posizioan badago —hau da, ahoskatzean eten txiki bat eginda—:

$[_{TOP}\ Jon]_2$ [nor jotzen]₁ t_2 ikusi duzu t_1 ?

1.9. [x_s ... -t(z)en] egitura baino ageriko egitura konplexuagoen gaineko murrizketa

Goenagaren lanean (1984: 124) azaltzen zaigu «-t(z)en formako konpletiboak perpaus nagusiaren aldi berekoa» izan behar duela. Ezaugarri horrek Felser-ek (1998, 1999) deskribatzen dizkigun ondorio zehatzagoak ditu; horrela, PVC egituren baitan ezin da agertu aditz jokaturik (27a), perfektuaren markarik (27b) edota aspektu-aditzik (27c).

- 27. a. *Jon(ek) pianoa jotzen zuen ikusi genuen.
- b. *Jon liburua irakurri izaten ikusi dut.
- c. *Jon pianoa jotzen ari(tzen) ikusi dugu.

Nolanahi ere, aldiberekotasun hori azaltzean, bada alde nabarmen bat Goenagaren eta Felser-en artean. Hara nola definitzen duen Felser-ek Aldiberekotasun Baldintza:

28. *Oharmen-aditzaren osagarriko gertaera mugatzen duen denborak perpaus nagusiko gertaera biltzen du.* (Felser, 1999: 80tik moldatuta)

Ñabardura garrantzitsua da; izan ere, Felser-ek mendeko perpausoko denborak (t_1) perpaus nagusikoa (t_2) *bidu* egiten duela dio ($t_1 \geq t_2$), eta berariaz baztertzen du Aldiberekotasun Baldintzaren lehen zirriborro batean (Felser, 1999: 39) proposatutako $t_1 = t_2$ lotura. Berehala ikusiko dugun bezala, euskararen azterketarako ere oso interesgarria dugu bereizketa hori. Ingelesezko oharmen-aditzen osagarriak deskribatzean, bi motatako PVC egiturak bereizi izan dira: PPVC (*participial perception verb complements*) eta IPVC (*infinitival perception verb complements*). Hona Felser-ek (1999: 76) aipatzen dituen adibideak:

- 29. a. We saw John painting the wall. (PPVC)
- b. We saw John paint the wall. (IPVC)

(29a) eta (29b) adibideen arteko aldea honetan datza: lehenak ekintzaren parte bat ikusi izana islatzen du. Bigarrenak, berriz, pintatzearen ekintza osoa ikusi dela, hasi denetik amaitu arte. Beste hizkuntza batzuetan ere antzematen da bereizketa hori; gaztelaniaz, esaterako:

- 30. a. Hemos visto a Juan pintando la pared. (PPVC)
- b. Hemos visto a Juan pintar la pared. (IPVC)

Hala ere, ematen du euskaraz ez dugula horrelakorik; izan ere, oharmen-aditzen osagarriek nahitaezko dute -t(z)en morfema jasotzea:

- 31. a. Jon horma pintatzen ikusi dugu.
- b. *Jon horma pintatu ikusi dugu.

Hortaz, zer da euskarazko PVC egituretan islatzen dena: ekintza osoa ala prozesuaren atal bat? Ondoko adibidearen gramatikaltasunak garbi frogatzen du euskarazko PVC egiturek ekintzaren parte bati egiten diotela erreferentzia:

- 32. Jon horma pintatzen ikusi dut, eta antzina hasia zela ematen zuen.

Hala ere, euskarazko PVC egiturek prozesu osoa ere isla dezakete. Hori frogatzeko, oso iraupen laburra duten gertaerak txerta ditzakegu oharmen-aditzaren osagarrian (33a); edo deskribatutako ekintzaren hasiera eta amaiera mugatu egin ditzakegu (33b, c):

33. a. Txapligua lehertzen ikusi dut.
- b. Jon kanpadenda di-da batean muntatzen ikusi dut.
- c. Miren hiru auto ordubetea konpontzen ikusi nuen behin.

Gertaera osotasunean interpretatzera behartzen gaituen beste testuinguru bat elkarren segidan gertatutako ekintzen zerrendatzea dugu, Meer-ek (1994) ohartarazten duen moduan:

34. Jon harriak biltzen, kutxa batean sartzen eta alde egiten ikusi nuen.

Hortaz, esan daiteke euskarazko oharmen-aditzek *-t(z)en* morfemadun osagarriak hartzen dituztela ekintza osoa [-progr.] nahiz haren zatia [+progr.] deskribatzeko¹⁴.

Azpiatal honetan ikusitakoaren arabera, argi dago PVC egituretan ez dagoela *-t(z)en* morfema baino ageriko egitura konplexuagorik. Hortaz, esan gabe doa ageriko Denbora Sintagmarik ere ez zaigula agertuko. Horrekin lot daitekeen beste ezaugarri bat ere badugu oharmen-aditzen osagarrietan: *denbora-adizlagunen gaineko murrizketa*. Felser-ek dioskunez (1998: 358), PVC egitura baten baitan txertatutako denbora-adizlagunak ezinbestez du perpaus nagusiaren gaineko besarkadura¹⁵:

35. Etxea berriki pintatzen ikusi dut. (Felser, 1998: 359tik moldatutako adibidea)

Argi dago *berriki* adizlaguna mendeko egituretan dagoela txertatuta, mendeko aditzaren eta haren osagarriaren artean agertzen zaigu eta. Halaber, perpaus nagusiko denbora-adizlagunek ere eragiten dute mendeko egituretan. Ondoko adibideetan ikusten den bezala, nahiz eta mendeko egituretan agertzen zaigun elementua bera izan adibide guztietan (*Jon liburua irakurtzen*), PVC egiturek deskribatutako gertaera perpaus nagusian islatutako denboran interpretatu behar dugu (*atzo, orain* edo *arratsaldean*).

36. Jon liburua irakurtzen (PVC egitura)
 - a. *Jon liburua irakurtzen* ikusi nuen atzo.
 - b. *Jon liburua irakurtzen* ari naiz ikusten orain.
 - c. *Jon liburua irakurtzen* ikusiko dut arratsaldean.

14. Ezaugarri hori ez dugu euskaraz bakarrik aurkitzen. Di Tullio-k (1998: 200, 6. oh.) dioenez, Brasilgo portugesak gerundiora jotzen du aspektu biak markatzeko; Portugalgo portugesak eta italiarrek, berriz, forma infinitiboak baino ez dituzte erabiltzen. Bestalde, Rapaport-ek (1986) dioenez, hebreeraz ez da posible ingelesezko infinitiboak eskaintzen digun interpretazioa.

15. Lan berean azaldutako beste ondorio bat da PVC egituren baitan agertzen diren adizlagunak ez direla egiazko adizlagunak, moduzkoak baizik (Felser, 1998: 361). Hala ere, planteamendu hori ez da berriro agertzen 1999ko lanean, eta ondoren ikusiko ditugun euskararen adibideek ere kontrako frogak eskaintzen dizkigute.

Hala ere, posible da perpaus nagusian denbora-adizlagun bat txertatzea eta beste bat oharmen-aditzaren osagarrian, baldin eta bateragarriak badira:

37. a. *Beti* ikusi izan dut Jon autoa *igandeetan* garbitzen.
- b. *Iaz* ikerlariek itsas txakurrak grabatu zituzten uretara *goizean goiz* sartzen.

Beste egitura batzuetan, berriz, ez dugu antzematen perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko iragazkortasun hori denbora-adizlagunekiko:

38. [_{Konp-S} Jonek liburua *iaz* irakurri zuela] ikusi nuen *atzo*.

Duda barik aldeberekotasunarekin lotuta dagoen datu hau lagungarri gerta dakiguke oharmen-aditzen osagarria identifikatzeko.

1.10. Izaki Predikatuen gaineko murrizketa

Felser-ek aipatzen duen beste ezaugarri bat Izaki Predikatuen gaineko debekua da, eta honela azaltzen du: «Oharmen zuzenaren interpretazioa posible izan dadin, oharmen-aditz baten perpaus osagarri jokatu gabekiko Egoera Predikatu jaso behar du» (Felser, 1999: 45). Hona adibide batzuk:

39. a. *Jon altua izaten ikusi dugu.
- b. *Gazte hori ahots polita izaten entzun dugu.
- c. *Miren gaztea izaten sumatu genuen.

Posible da itxuraz Izaki Predikatu dena oharmen-aditzen osagarrietan txertatzea, *Jon egoskorra izaten ikusi genuen* bezalako perpausetan, baina izatez predikatu horiek Egoera Predikatu bezala jokatzen dute (Carlson, 1980; Felser, 1999), eta horren froga dugu *Jon modu egoskorrean jokatzen ikusi genuen* izatea aipatutako esaldiak duen irakurketa bakarra.

1.11. PVC egituraren gaineko murrizketa

Gee-k (1977) eta Barss-ek (1985) ohartarazi duten legez, PVC egiturako subjektuaren gaineko murrizketa mendeko aditzak ezartzen du, eta ez oharmen-aditzak. Horren froga dugu oharmen-aditzak onartzen ez dituen determinatzaile-sintagmak arazo barik ager daitezkeela PVC egituren subjektuetan:

40. a. *Jonek *eskailerak* entzun ditu.
- b. *Mirenek *tenperatura* ikusi zuen.
- c. Jonek [_{PVC} *eskailerak* erortzen] entzun ditu.
- d. Mirenek [_{PVC} *tenperatura* jaisten] ikusi zuen.

Esan gabe doa kontrakoa ere gerta daitekeela; hau da, oharmen-aditz jakin batentzat egokia den sintagmak (41a) perpaus ezgramatikala eragin dezake aditz beraren osagarri-posizioan agertzen den PVC egitura baten subjektuan (41b):

41. a. Mikelek *kaleko zaratak* entzun ditu.
- b. *Mikelek [_{PVC} *kaleko zaratak* jendea iratzartzen] entzun ditu.

Horrez gain, gerta daiteke PVC egitura bik subjektu bera izatea, eta hala ere, bata osagarri egokia izatea oharmen-aditz jakin batentzat eta bestea, ez:

42. a. [_{PVC} Jon *etxera sartzen*] entzun dut.
- b. *_{[PVC} Jon *aspertzen*] entzun dut.

Hortaz, bistan da oharmen-aditzek ez dutela murrizketarik ezartzen PVC egituretako subjektuen gainean. Ezta PVC egiturako predikatu hutsaren gainean ere, egile batzuek hori proposatu izan duten arren (Gee, 1977; Barss, 1985); ondoko adibideek erakusten diguten bezala, PVC egituradun perpaus gramatikala ezgramatikalki bihur daiteke, predikatua aldatu ez arren:

43. a. [_{PVC} Igogailua *jaisten*] entzun dut.
- b. *_{[PVC} Temperatura *jaisten*] entzun dut.
- c. [_{PVC} Jon *txistu egiten*] ikusi dut.
- d. *_{[PVC} Haizea *txistu egiten*] ikusi dut.

Azalpena Felser-ek (1999: 22) proposatzen duen bidetik dator; hau da, oharmen-aditzak PVC egitura osoaren gainean ezartzen duen murrizketatik¹⁶. Horrela, (44a) eta (44c) adibideetan gertatzen den moduan, perpausa gramatikala izango da baldin eta PVC egituran deskribatzen den *gertaera osoa* bada osagarri egokia oharmen-aditzarentzat, PVC egitura hori osatzen duten subjektu edo predikatu hutsak gorabehera. Berriz, PVC egiturak deskribatzen duen gertaera ez bada antzemangarria perpaus nagusiko aditzak deskribatzen duen moduan (44b, d), perpausa ezgramatikala izango da:

44. a. [_{PVC} Jon *aspertzen*] ikusi dut.
- b. *_{[PVC} Jon *aspertzen*] entzun dut.
- c. [_{PVC} Haizea *txistu egiten*] entzun dut.
- d. *_{[PVC} Haizea *txistu egiten*] ikusi dut¹⁷.

Argi dago, hortaz, ez subjektu hutsak ez predikatu hutsak ez dutela bermatzen oharmen-aditzak PVC egitura onartzea edo baztertzea. Hortaz, oharmen-aditzak ez du ez bataren ez bestearen gaineko murrizketarik ezartzen, PVC egitura osoan deskribatutako ekintzaren gainean baizik¹⁸.

16. Horrek iradokitzen digu PVC *egitura osoa* hautatzen dela osagarritzat.

17. Beharbada, oharmen-aditzetan erabiliena *ikusi* aditza dugu. Dena dela, oharmen-aditzek zeren gaineko murrizketa ezartzen duten argitzean ez da erraza *ikusi* aditzarekin jokatzera. Izan ere, gertaera bat erabat ikusezina izan dadin beharrezkoa da ikusmenaz ezin antzematea ez ekintza horren subjektua, ez gertaera bera (subjektuaren antzemangarritasuna gorabehera), ezta ekintzaren ondorioak ere. Hortaz, zaila da *ikusi* aditzak onartuko ez duen PVC egiturarik aurkitzea:

- i. Jon pentsatzen ikusi dut. (subjektu antzemangarria)
- ii. Haizea zuhaitzak mugitzen ikusi dut. (gertaera antzemangarria)
- iii. Temperatura jaisten ikusi dut. (ondorio antzemangarriak)
- iv. *Haizea txistu egiten ikusi dut.

18. Hala ere, badirudi badagoela nolabaiteko lotura subjektuaren antzemangarritasunaren eta hurrenkera neutroaren artean. Laugarren oharrean aipatu dudana bezala, zenbait hiztunentzat hurrenkera ez markatuan PVC egitura zaituta agertzen zaigu (*Jon ikusi dut lagunekin hitz egiten*). Hala ere, badirudi subjektua ez denean behagarria (17. oh., (ii) adibidea), hurrenkera neutroa beti dela PVC egitura osoa biltzen duena.

1.12. Laburpena

Atal honetan ikusi dugun bezala, oharmen-aditzen osagarriek oso ezaugarri be-reziak dituzte. Batetik, nahikoa datu dugu subjektuak eta predikatuak egitura oso eta bakarra osatzen dutela iradokitzen dutenak; esate baterako, egituraren oso-tasuna, subjektua elementu isila izan ahal izatea, oharmen-aditzak PVC egitura osoaren gaineko murrizketak ezartzea (subjektua barne) edota, anafora-harrema-nekin lotuta, PVC egiturako subjektua aitzindari egokia izatea egitura horretako gainerako argumentuetan agertzen diren anaforentzat.

Baina kontrakoa iradokitzen duten ezaugarriak ere agertu zaizkigu; hau da, subjektua PVC egituratik kanpo dagoela iradokitzen dutenak. Horrela, egiaztatu dugu PVC egiturako subjektuak gainerako PVC egituratik bereizteko gaitasuna duela, eta ez duela kasu ergatiborik inoiz jasotzen (absolutiboa eta partitiboa, bai, ordea). Horrez gain, subjektu horrek komunztadura egiten du perpaus nagusiko aditzarekin. Anafora-harremanei dagokienez, ikusi dugu perpaus nagusiko subjek-tua aitzindari egokia dela PVC egiturako subjektuan agertzen den anaforarentzat, baina ez mendeko egituran agertzen diren gainerako anaforentzat. NZ hitzek era-gindako *pied-piping* mugimenduek ere subjektuaren eta gainerako PVC egituraren arteko zatiketaren alde bideratzen gaituzte.

Bestalde, aipatutako ezaugarri batzuek erakusten digute edo PVC egitura gutxi garatzen dela Aditz Sintagmatik gora edo, horrela ez bada, islapen gehienek agerikoa ez den burua jaso behar dutela ezinbestez. Hala ematen du, behintzat, ikusita mendeko egituran ezin dela aditz jokaturik edo perfektu-markarik agertu, edota ez dagoela perpaus mailako ezeztapenik, ezta mendeko NZ hitzak ateratzea eragozten duen hesirik ere. Horrez gain, ikusi dugun moduan, denbora-adizla-gunek gehienetan perpaus nagusiaren zein menderatutako egituraren gaineko besarkadura dute; horrela ez denean, denbora-adizlagunek ezin dute hautsi perpaus nagusiak deskribatzen duen gertaeraren eta PVC egiturak deskribatzen duenaren arteko aldeberekotasuna.

Hurrengo atalean PVC egiturak azaltzeko egindako proposamen esanguratsue-n azterketa egingo dut, eta zerrendatu berri ditugun ezaugarrietan oinarrituta, proposamen horiek onartzeko dauden eragozpenak azaleratzen ahaleginduko naiz.

2. Orain arteko proposamenak

2.1. Determinatzaile Sintagma

PVC egiturei buruzko lehenengoetariko lana Akmajian-ena (1977) dugu. Hark honako egitura hau proposatu zuen oharmen-aditzen osagarrietarako: [_{DS} [_{DS}][AS]]. Bistakoa da proposamen horren eragozpen nagusia planteamendu teorikoan datzala, kontuan hartuta Hatsarre eta Parametroen azterbideak azken hamarkadetan izandako bilakaera. Horrela, bata bestearen osagarri ez diren sintagma beregainez osatutako DSren proposamena (Akmajian, 1977: 438) ez dator bat X'ren oinarri teorikoekin (Chomsky, 1995: 193tik aurrera¹⁹). Plantea-mentuak dituen eragozpenen aurrean, bigarren mailan gelditzen da nola azaldu

19. Orrialdea gaztelaniazko bertsioari dagokio.

kasu-etzarketa, edota *-t(z)en* morfemarentzako kokaleku egokia aurkitzea. Izan ere, ingelesezko IPVC egituretako aditza aditz soil bezala interpretatzerik balego ere²⁰, ASren baitan ez dugu ingelesezko *-ing* edota euskarazko *-t(z)en* morfemen-tzako azalpenik.

Euskararekin lotutako arazo espezifikoei dagokienez, Akmajian-en proposame-nean agertzen den hitz-hurrenkera aipatu behar da, lehenik eta behin: ingelesez ohikoa dugu [DS IS-XS] egitura izen-sintagma konplexuetan —erlatibo (laburtu)ak, konpletiboak eta osagarri/adjuntu diren preposizio-sintagmetan—:

45. a. [DS the [IS book [KONP-S which Anson lent to Jenny]]] (Adger 2003:371)
- b. [DS the [IS boy [XS crying in the kitchen]]]
- c. [DS the [IS idea [KONP-S that John is gone]]]
- d. [DS a [IS review [PREP-S of a new book about China]]]

Hortaz, Akmajian-en proposamenak ingelesez beste egitura batzuetan ere ohi-koa den ereduari jarraitzen dio. Euskaraz, ordea, halako egituretan ohiko hurren-kerak ez dugu IS-XS, XS-IS baizik:

46. a. [DS [IS [KONP-S Mirenek Joni utzi zion] liburu] -a]
- b. [DS [IS [KONP-S sukaldean negarrez ari den] mutil] -a]
- c. [DS [IS [KONP-S Jonek alde egin duen/duelako] ideia] -a]
- d. [DS [IS [POSP-S Txinari buruzko] aldizkari berri] -a]

Beste modu batean esanda, ingelesa bezalako hurrenkeren kasuan, non izen burua edo IS beste sintagmaren ezkerretara agertzen den, Akmajian-en proposa-mena guztiz arrunta litzateke (hurrenkerari dagokionez, behintzat). Euskara beza-lako hizkuntzen kasuan —alegia, burua edo IS osagaia beste sintagmaren eskuin-etara agertzen dutenen kasuan—, Akmajian-en proposamena erabat ezohikoa eta *ad hoc* izango litzateke; PVC egiturentzat berariaz eraikitako egitura. Horrez gain, Akamajian-ek PVC egituren zatigarritasunean aurkitu zuen DSren aldeko argudio garrantzitsuenetariko bat, honako adibideak erabilita (1977: 433):

47. a₁. *The moon rising over the mountain* look spectacular.²¹ (PVC egitura)
- a₂. *The moon* looks spectacular *rising over the mountain*.
- b₁. *A review of a new book about China* will appear soon. (DS)
- b₂. *A review* will appear soon *of a new book about China*.

Euskararen kasuan, berriz, Akmajian-ek proposatutako adibideen parekoak erabiltzean, hurrenkera hutsa baino gehiago dugula iradokitzen duten aldaketa sintaktikoak antzematen ditugu, PVC egituretan ez bezala:

48. a₁. *Jon atea irekitzen* ikusi dut. (PVC egitura)
- a₂. *Jon* ikusi dut *atea irekitzen*.
- b₁. *Txinari buruzko aldizkari berria* agertuko da laster. (DS)
- b₂. *Aldizkari berria* agertuko da laster *Txinari* {**buruzko/ buruz/ buruzkoa*}.

20. Interpretazio horren kontra ikusi Felser (1999: 94tik aurrera).

21. Adibide honek erakusten duen legez, Akmajian-ek praktikan ez ditu bereizten egiazko oharmen-aditzen osagarriak eta subjektu-posizioan agertzen diren *-ing* egiturak.

Atzera ere, (46) adibidean ikusi dugun legez, (48)-ko perpausek agerian utzi dute eskuinean ageri den edo ager daitekeen elementua sintagma konplexuaren hasiera dela, eta ez oharmen-aditzetan bezala, amaiera. Nahikoa arrazoi dugu, hortaz, Determinatzaile Sintagman oinarritutako azterbidea alde batera uzteko.

2.2. Konplementatzaile Sintagma

Konplementatzaile Sintagmaren proposamena Goenaga (1984, 1985) eta Iwakura-ren (1984) lanetan aurki dezakegu, besteak beste. Azterbide horrek dituen eragozpenetan nabarmenena, beharbada, hauxe da: ez dugula Konplementatzaile Sintagmaren edota Denbora Sintagmaren inolako aztarnarik²². Subjektuaren gaineko murrizketarentzat ere ez dugu ageriko arrazoirik, Konplementatzaile Sintagma biltzen duen egitura badugu. Horren aurrean esan daiteke Dnb buruak forma lexikorik ez izateak eragotzi egiten duela subjektuaren kasua erkatzea, baina euskaraz badugu kontrakoa erakusten digun adibiderik; esate baterako, jokatugabeko perpaus kontzesiboen kasua. Perpaus mota horrek ere ez du ageriko Dnb bururik, baina subjektuek kasua erka dezakete, ondoko adibideetan ikusten den legez:

49. a. [Jon etxean gelditu arren] gu zinemara joango gara.
b. [Jonek txirrina jo arren] inork ez zuen atea ireki.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu Konp-Sintagman oinarritutako azterbidera-ko ere eredu bat baino gehiago proposatu izan dela. Horrela, egile batzuek mendeko perpausean kokatu izan dute PVC egiturako subjektua. Horrek zaildu egiten du zenbait gertaera azaltzea: lehena, zergatik eta zelan erkatzen dituen mendeko subjektuak aditzaren osagarriari dagozkion kasu-markak. Bide horretatik, Reuland-ek (1983) eta Iwakura-k (1984) ingelesen *-ing* egituretan kasua Konp-Sintagman zehar perkolatu eta mendeko subjektu-posizioa heltzen dela defendatu izan dute; baina azterbide horrek tasunen nolabaiteko beheranzko mugimenduan oinarritzea eskatzen digu. Subjektua mendeko sintagman duen Konp-S batek duen bigarren zailtasuna ondokoa da: PVC egituren kokatutako subjektu horrek perpaus nagusiko aditzarekin komunztadura nola egiten duen azaltzea. Hirugarrenik, halako egituren oinarrituta, aurreikusten da ez dela izango perpaus mailako ezeztapenaren gaineko murrizketarik (ikusi 1.7. puntua); eta horrekin lotuta, PVC egiturako subjektuan Ezezko Polaritatedun Elementuak agertu ahal izatea ere esperoko genuke, ezeztapenak mendeko subjektua o-komandatuko luke eta. Are gehiago, ez dago ageriko arrazoirik mendeko egituren kokatutako subjektuak *pied-piping* mugimendurik ez eragiteko —ikusi (26)-ko adibideak—, edota PVC egitura osoa mugitzen denean, mugimendu horretatik kanpo geratzeko —(24) eta (25)-eko adibideak—.

Goenagak, berriz, kontrol-egitura proposatzen digu, PRO elementua PVC egiturako [Espez, Infl'] posizioan kokatuz eta haren indizekide den DS/IS PVC egituratik kanpo:

50. Nik [_{AS} Andoni_i [_{Konp-S} PRO_i txakurra jotzen]] ikusi dut. (1984:130)

22. Goenagak (1984, 1985) *-t(z)en* morfema zatitu eta *-t(z)e* Lag^o gunean kokatzen du eta *-n* Konp^o-n. Horretarako, *-t(z)e* morfema nominalizatzaileaz eta *-n* inesibo-markaz osatutako *-t(z)en* konplexua proposatzen du. Artikulu honen 3.1. atalean ikusiko dugu arrazoi nahikoa dagoela pentsatzeko *-t(z)en* Asp^o posizioan txertatutako morfema bakarra dela, oharmen-aditzen osagarrien kasuan, behinik behin.

Planteamendu horrek aipatu ditugun arazo gehienak saihestuko lituzke. Hala ere, Goenagaren proposamenean PVC egiturako PRO elementua kontrolatzen duen elementua mendeko egituratik kanpo dago; ondorioz, ez du azalpenik osotasuna iradokitzen duten datuetarako (ikusi 1.1. atala). Horrez gain, badira beste arazo batzuk Konplementatzaile Sintagmaren azterbideari berari dagozkionak, subjektua dagoen lekuan dagoela. Esaterako, lehen esan bezala, ez dago ez Konp-Sintagmaren ez Dnb-Sintagmaren gauzatze lexikorik. Horrez gain, Konp-Sintagmaren azterbideak ez digu inolako azalpenik eskaintzen Izaki Predikatuen gaineko murrizketarako, edota aldiberekotasunerako (eta horrekin batera, denbora-adizlagunen jokabiderako). Bestalde, Felser-ek dioen moduan (1999: 91), Konp-Sintagmaren espezifikatzailea NZ hitzak jasotzeko gai izatea ere esperoko genuke, baina ez da horrela gertatzen:

51. a. Ez dakit [_{Konp-S} zer_i [esan duen]_j Jonek t_j]
 b. *Ez dut entzun Jon [_{Konp-S} zer esaten]

Bestalde, egia da ikusi berri ditugun zenbait arazoren aurrean argudia deza-kegula tasun jakin batzuk (A-2 efektua edota mendeko egitura NZ hitza agertzea, esate baterako) Konp^o buruak gauzatze lexikoa izatearekin lotzen direla. Nolanahi ere, Konplementatzaile Sintagmaren kontrako argudiorik sendoena, ikuspegi minimalistatik, ekonomiaren hatsarrea aurki dezakegu beharbada. Beste modu batean esanda, ez dago inolako arrazoirik behar baino (edo ikusten den baino) kategoria gehiago txertatzeko proposatzen ari garen egitura.

2.3. Inflexio Sintagma

Felser-ek Inflexio Sintagman oinarritutako proposamena aztertzen du (1999: 3.3.2. atala), baina baztertu egiten du. Di Tullio-k (1998: 212), berriz, egitura hau proposatzen du gaztelaniazko infinitibodun PVC egituretarako.

Konplementatzaile Sintagmaren proposamena aztertzean ikusi dugun bezala, Denbora buruak forma lexikorik ez izatea ez da oztopo subjektuaren kasua erkatzeko. Baldin eta horrek eragiten duen eragozpena gainditu ahal izango bagenu, eta azaldu zergatik den posible subjektuak kasua erkatzea beste perpaus jokatu-gabe batzuetan —kontzesiboetan, esaterako— eta ez oharmen-aditzen osagarrietan, Inflexio Sintagmaren proposamenak bide interesgarria zabalduko liguke PVC egiturak igoera-egitura bezala deskribatzeko²³. Igoera da, hain zuzen ere, D'Introno-k (2001: 313-314) gaztelaniarako egiten duen proposamena (hala ere, D'Introno-ren ustez mendeko subjektuaren igoera berregituraketa bitartez lortzen da, aditza perpaus nagusikora atxikiz; aurrerago ikusiko dugun moduan, igoera berregituraketara jo barik azal daiteke). Igoeraren proposamena bat dator, bestalde, Stowell-ek (1982) egiten duen azterketarekin infinitibozko igoera-egiturak eta *aldiberekotasuna* uztartuz —oharmen-aditzen osagarrietan ere aurkitzen dugun ezaugarria, hain zuzen (ikusi 1.9. atala)—. Horrez gain, igoerak PVC egituraren osotasuna eta zatigarritasuna azalduko lituzke, eta bide horretatik, baita komunztadura eta kasu-harremanak ere.

23. Kontrol-egitura guztiak igoera bezala aztertzearen aldeko proposamena Hornstein (1999) eta Boeckx eta Hornstein (2006) lanetan azaltzen da. Kontrako ikuspuntua San Martinen (2002) tesian defendatzen da.

Hala ere, azterbide honek ez digu argitzen zergatik ezin den agertu *-t(z)en* morfema baino ezein egitura konplexuagorik —(27)-ko adibideak—. Azterbide honek ezeztapenaren gaineko murrizketaren aldeko argudiorik ere ez digu eskaintzen²⁴. Bestalde, ekonomia-irizpidean oinarrituta, ez dago arrazoirik pentsatzeko PVC egituretan balizko Inflexio Sintagma ikusezina dugula, non eta ez dugun aurkitzen egitura hori beharrezko egiten duen beste arrazoirik. Horrez gain, kontuan hartu behar dugu oharmen-aditzen osagarriak azaltzeko Infl-Sintagmara jotzeak euskaraz guztiz argitu gabe dauden auzietan oinarritzea eskatzen digula. Izan ere, ingeleserako Inflexio Sintagmaren azterbidea proposatu zenean, ageriko subjektua eta aditz infinitiboak agertzen dituzten egiturak (52a) azaltzea zen helburua, (52b)-koa bezalako kontrol-egiturekiko aldeak azaldu ahal izateko²⁵:

52. a. Mary wanted [_{Infl-S} John to win the race].
 b. Mary_i wanted [_{Konpl-S} PRO_i to win the race].

Euskaraz, ordea, kontua bihurritu egiten da. Hasteko, (52)-ko adibideen parekoetara jotzen badugu (53a, b), ikusiko dugu haien arteko aldea subjektuaren nolakotasuna baino sakonagoa dela. Hala ere, hori baino oztopo garrantzitsuagoa dugu bata zein bestea urrun egotea euskarazko oharmen-aditzen osagarrietatik (53c):

53. a. Mirenek [Jonek lasterketa irabaztea] nahi zuen.
 b. Mirenek_i [PRO_i lasterketa irabazi] nahi zuen.
 c. Mirenek Jon lasterketa irabazten ikusi zuen.

Ingelesez Inflexio Sintagma bezala aztertu izan denaren pareko egitura (53a) dugu; konparazioa egitura horretara mugatuz, nabarmen agertzen zaigu halakoe-tan ezinezkoa dela mendeko egitura menderatzen duen islapenaren burua *-t(z)en* morfema izatea, edota ez dagoela mendeko ergatiboaren gaineko inolako murrizketarik. Ez dago zertan sakondu alderaketa honetan, baina hala eginez gero, berehala ikusiko dugu (53a) bezalako egituretan ez dela betetzen Aldiberekotasun Baldintza, posible dela subjektuan Ezezko Polaritadedun Elementuak agertzea, NZ hitzen ateratzeak eta *pied-piping* mugimenduek PVC egituretan ez bezalako ondorioak dituztela, edota ez dagoela Izaki Predikatuaren gaineko murrizketarik, besteak beste. Nahikoa arrazoi aurrera ez egiteko ingelesezko eredia euskarara egokitzeko ahaleginean. Horri gehitu behar zaizkio euskaraz infinitibotzat zer hartu beharko genukeen zehazteak sortuko lituzkeen eragozpen guztiak²⁶. Gainera,

24. Murrizketa hori azaltzeko aukera bat Ortiz de Urbinaren (1993) eta Lakaren (1991) proposamenen artean Lakaren eredia hobestea da, ezeztapena Inflexio Sintagma baino gorago kokatuz. Hala ere, horrela ez genioke arazoaren muinari helduko, irtenbide horrek euskararako baino ez baitigu balio, eta ezeztapenaren gaineko murrizketa orokorra da (Felser, 1998, 1999).

25. Bošković-ek (1996), berriz, egitura horiek guztiak Inflexio Sintagma bezala aztertzea proposatzen du, mendeko subjektua PRO izan zein agerikoa izan. Martinek (2001) ere Denbora buruaren tasun huztetan oinarritzen du bataren eta bestearen arteko aldea.

26. Horrekin lotuta, ez dut sakondu (53b) adibidean eta hura euskarazko Inflexio Sintagma bezala azterteak ekarriko lituzkeen ondorioetan. Auzi hori urrundu egiten da lan honetan aztertzen den gaitik; edonola ere, argi dago euskarazko oharmen-aditzen osagarriak (53b)-ren bidetik azterteak ere oztopo ugari dituela. Batzuk aipatzearen, (53a) adibideko *-t(z)en* morfemaren gaineko murrizketa, edota Aldiberekotasun Baldintzarik eza. Horrez gain, (53b) bezalako egituretan berranalisia gertatzen da, eta mendeko egiturak bat egiten du perpaus nagusiarekin. Berranalisia horren ondorioak ere nabarmenak dira: esate baterako, PVC egituretan ez bezala, perpaus nagusiko aditzak komunztadura egiten du mendeko osagarriarekin (*Mirenek PRO lasterketa irabazi nahi ditu*).

esanguratsua da orain arte —nik dakidanez, behintzat— inork ez erabili izana Inflexio Sintagma hutsean oinarritutako azterbiderik euskarazko inolako menpeko egiturarik azaltzeko. Hortaz, ausarta litzateke bestelako arrazoirik gabe *-t(z)en* morfemadun egiturak Inflexio Sintagmak direla esatea²⁷.

2.4. Aditz Sintagma

Aditz Sintagmaren azterbidea proposatu izan denean ere ingelesa hartu izan da eredu, eta zehazkiago, ingelesezko infinitibodun egiturak (*I saw John play the drums* motakoak). Hori dela eta, ez naiz egitura honen azterketan luzatuko. Izan ere, Aditz Sintagmaren proposamenak izan ditzakeen beste eragozpenak gorabehera, euskaraz ez dugu infinitibodun PVC egiturarik; egiten dugun edozein proposamenek *-t(z)en* morfema jasoko duen gune egokia eskaini behar digu, eta Aditz Sintagmak ez digu eskaintzen halako aukerarik. Hain zuzen, orain arte *-t(z)en* egiturak aztertzean (oharmen-aditzen osagarrietakoak zein beste egitura batzuetakoak) egindako proposamenetan ere argi islatzen da AS baino egitura konplexuagoaren beharra (Goenaga, 1984, 1985; Eguzkitza, 1985; Hualde eta Ortiz de Urbina, 1987; Laka, 1991; Artiagoitia, 1995)²⁸.

2.5. Perpaus Txikia

Perpaus Txikien azterketan hedatuena Stowell-ek (1983) proposatutako eredia dugu (Artiagoitia, 2000: 155). Felser-ek (1999: 108), ordea, baztertu egiten du Stowell-en eredia autore batzuek (Bennis eta Hoekstra, 1989; Wyngaerd, 1989; Suzuki, 1991; Chomsky, 1993) aurretik aipatutako zenbait argudio erabilita. Haiek bezala, arreta berezia eskaintzen dio Perpaus Txikietako subjektuaren eta predikatuaren artean dagoen komunztadura-harremanari:

54. They considered *him an idiot/ *idiots*. (Felser, 1999: 109)

Kontuan hartuta komunztadura-harreman hori, eta aipatu berri ditudan egileen proposamenei jarraituz, Felser-ek dio Perpaus Txikietan dugun islapen nagusia nolabaiteko Komunztadura Sintagma izan beharko litzatekeela, subjektuaren eta predikatuaren arteko harreman hori bermatu ahal izateko. Bestalde, ikuspuntu teorikotik ere Komunztadura Sintagman oinarritutako azterbidea erakargarriagoa iruditzen zaio Felser-i (1999: 108). Izan ere, Stowell-en eredian ez bezala, islapen nagusia (Kmz-S) buru baten (Kmz^o) islapena da. Kontuan hartu behar dugu Stowell-en eredian agertzen den islapen nagusia Perpaus Txikiaren predikatu bezala jokutzen duen Aditz Sintagmaren, Postposizio Sintagmaren, edo dena delako sintagmaren islapena dela (Stowell, 1983: 301). Horrek, Felser-ek azpimarratzen duen legez, kontraesana eragiten du X-barraren hatsarreekiko. Hona hemen Stowell-ek erabilitako eredia (55a), eta Felser-ek defendatutakoa (55b):

27. Egia da Eguzkitzak (1985) Inflexio Sintagma erabili zuela, hain zuzen ere, oharmen-aditzen osagarriak azaltzeko; dena dela, ez dago arrazoirik Eguzkitzaren proposamena Goenagarenetik —hots, Komp-Sintagmatik— bereizten dela pentsatzeko, erabilitako terminologia gorabehera. Ingelesezko PVC egiturak Inflexio Sintagmaren bidetik aztertzearen aldeko proposamena Burzio-k (1986) eskaintzen digu. $[_{NP}_i [_S PRO_i \dots]]$ eta $[_S \dots]$ egituretan oinarritutako azterbideak baztertu ondoren, beste hau proposatzen du: $[_S I_i [_{Infl-S} PRO_i]]$. Burzio ingelesezko egitura erlatiboetan oinarritzen da, baina euskarazko egitura erlatiboak ikusita, argi dago ez dutela zerikusirik oharmen-aditzen osagarriekin.

28. Nahiz eta aipatutako lanen artean hainbat alde egon *-t(z)en* morfemaren deskribaketarekin eta kokalekuarekin lotuta.

55. a. [_{XS} DS_{subj} X']

b. [_{Kmz-S} DS_(subj) [_{Kmz'} Kmz° XS_(pred)]]

Hala ere, ezin dugu ahaztu Chomsky-k (1995: 359) aurkezten digun proposamena, non subjektuaren eta objektuaren tasunak aS-ren eta Denbora Sintagmaren espezifikatzaile-posizioetan erkatzen direla esaten den, eta ez Komunztadura Sintagmen espezifikatzaileetan. Ondorioz, Chomsky-k zalantzan jartzen du Kmz-Sintagmen funtzioa eta izatea bera —gerora Chomsky-k guztiz baztertu du Komunztadura Sintagmarik izatea (2000: 138)—. Proposamen horretan oinarrituta, Felser-ek berak ere (1999: 110) baztertu egiten du Komunztadura Sintagman oinarritutako azterbidea.

2.6. Aspektu Sintagma

Hauxe da Felser-ek (1998, 1999) proposatutako islapen nagusia PVC egituretan. Lehenengo bertsioan, [Asp-S [Okmz-S [AS]]] egitura aurkezten digu (Felser, 1998: 359). Azken bertsioan, berriz, Chomsky-ren 1995eko ereduari jarraituz, aditzaren osagarriak kasua erkatzen duen gunea [Espez, a'] posizioan kokatzen du, eta 1998ko egitura beste honekin ordezkutzen: [Asp-S [aS [AS]]]. Bigarren horri helduko diot neuk ere proposamen honetan; 3.2. atalean ikusiko dugun legez, azterbide horrek Aspektu Sintagmaren bideak lehenengo atalean aztertutako ezaugarri guztiak azaltzeko aukera eskaintzen digu. Horrez gain, azterbide honek bide interesgarria zabaltzen digu *-t(z)en* morfemadun beste egitura batzuk aztertzeko.

3. Aspektu Sintagmaren azterbidea

Aspektu Sintagman oinarritutako azterbideak eskaintzen digun bideari ekin aurretik, dagoeneko aipatutako kontu bat argitu beharra dago: *-t(z)en* morfemaren izaera, hain zuzen. Izan ere, *-t(z)en* morfema oso eta bakarra badugu, aztertu egin beharko dugu zein gunetan kokatu behar den. Aldiz, Goenagak (1984, 1985) proposatu bezala, PVC egituretako *-t(z)en* morfema [[*-t(z)e*] *-n*] egitura konplexua bada, banaketa hori egiteko aukera eskaintzen digun egitura bilatu beharko dugu.

Goenagak proposatutako azterbidea ez da oharmen-aditzen osagarrietara mugatzen; proposamen horrek beste *-t(z)en* egitura batzuen azterketetan izan du eragin handiena (Hualde eta Ortiz de Urbina, 1987; Ortiz de Urbina, 1987; Laka, 2004). Jarraian, 3.1. atalean, *-t(z)en* morfema oso eta bakarra dela erakutsiko dut, eta morfema horrek Asp° posizioa betetzen duela PVC egituretan²⁹. Horrekin guztiarekin ez dut zalantzan jartzen *-t(z)en* morfemaren jatorria arestian aipatutako proposamenen bidetik azal daitekeela, ezpada morfema horren gaur egungo ezaugarriek Asp-Sintagmaren izaerari erantzuten diotela.

3.1. [_{Asp-S} *-t(z)en*] eta [_{Post-S} [*-t(z)e*] *-n*] azterbideak aurrez aurre

Lafitte-k (1944) *-t(z)en* morfema nominalizazioa eta inesibo-marka biltzen dituen egitura bezala deskribatu zuen, eta morfemaren zatiketa bera aurkitzen digu Txillardegiren (1978: 52) lanean ere. Aurrerago, Goenagak (1984: 14) aditz-perifra-

29. Haddican-ek (2005: 188) ere Aspektu Sintagmaren buruan kokatzen du *-tzen* morfema berregituraketaren auzia aztertzean.

sietan agertzen den *-t(z)en* morfema eta egitura konplexuetakoa bereizi zituen eta bigarrena honela azaltzea proposatu zuen: *-t(z)e* morfema nominalizatzailea, gehi hari atxikitako *-n* inesibo-marka. Hualdek eta Ortiz de Urbinak (1987) ere bide berera jo dute *ari* aditz progresiboaren osagarriak aztertzeko. Ikus dezagun zeintzuk diren aukera baten edo bestearen alde egiteko arrazoiak.

Hualdek eta Ortiz de Urbinak [_{Post-S} *-t(z)e* *-n*] ereduaren alde aipatzen dute *-t(z)en* egiturak inesibodun Determinatzaile Sintagmekin ordezkatu ahal direla. Ondoko adibideetan ikusten den moduan, arrazoi bera aplika dakieke oharmen-aditzen osagarri ere:

56. a. Jon eta Mikel [oinak mugitzen] ari dira.
- b. Jon eta Mikel [_{Post-S} dantzan] ari dira.
- c. Jon eta Mikel [oinak mugitzen] ikusi ditut.
- d. Jon eta Mikel [_{Post-S} dantzan] ikusi ditut.

Artiagoitiak (1995: 139) ere datu interesgarri bat eskaintzen digu *-t(z)en* egiturekin eta inesibodun DSeKin lotuta, hain zuzen, ondokoa bezalako adibideak erabilia, egitura bi horiek koordinazio bidez lot daitezkeela:

57. Lazkao Txiki [bertsotan] eta [istorioak kontatzen] entzun dut.

Datu hori ere *-tzen* egiturak inesibodun DSeKin parekatzeko erabil dezakegu. Dena dela, badago aipatutako argudioei aurre egiterik. Hasteko, onartu beharra dago bi elementuren koordinazioa froga ahulenetarikoa dela bi elementu horiek kategoria berekoak direla argudiatzeko; izan ere, bi elementu koordinatu ahal izateko nahikoa da antzekotasun semantikoak izatea. Horrez gain, kontuan hartu behar da (56) eta (57) adibideetan postposizio inesiboarekin agertzen diren izenak “bereziak” direla: hasteko, beti egiten diote erreferentzia ekintza bati. Horrez gain, Artiagoitiak dioten moduan (1995: 138), kontuan hartu behar da inesibodun Determinatzaile Sintagma gutxi batzuk baino ezin direla agertu *-tzen* egiturak ordezkatzan (*lanean, ametsetan, dantzan...* bai, baina *kantan, tristuran, musikan...* ez, itxuraz parekoak diren arren). Azkenik, izen horietako batzuk aipatutako testuinguruetan baino ez dira agertzen, ondoko adibideek erakusten duten legez; hortaz, argi dago ez direla DS arruntak.

58. a. Igerian ikusi zintudan.
- b. Igeri egitea/ *igeria da zuri komeni zaizuna.
- c. Egonean harrapatu zituzten langileak.
- d. Egotea/ *egona ez da lan egitea.

Horrez gain, bada Post-S horien eta *-t(z)en* egituren arteko beste alde garrantzitsu bat ere: *igerian, lanean, egonean*, etab. bezalako Postposizio Sintagmek Determinatzaile Sintagmak menderatzen dituzte. Berriz, *-t(z)en* egiturak Post-S bezala aztertzen baditugu, onartu beharko dugu Post-S horiek zuzenean menderatzen dituztela nominalizazioak, edo ezinbestez mugagabea den DS. Aukera biak dira susmagarri samarrak kontuan hartzen badugu beste egitura batzuetako *-t(z)e* morfemak DS mugatuek menderatuta agertu ohi zaizkigula:

59. a. Beharrezkoa da palestinarren kontrako zapalketa buka-*tzea*.
- b. Israeldarren politika babes-*teak* konplize egiten ditu herrialde asko.
- c. Palestinarren eskubideak errespeta-*tzean* geldituko dira borrokak.

Azken adibidea bereziki interesgarria dugu, bertan Post-S inesiboa agertzen zaigulako, eta *-t(z)en* egituretan ez bezala, DS mugatua menderatzen du. Bestalde, oharmen-aditzen osagarrietako *-t(z)en* egitura ez da (59c) adibideko inesibodun nominalizazioaren parekoa:

60. a. Palestinarren eskubideak errespeta-*tzean* geldituko dira borrokak.
- b. Palestinarren eskubideak errespeta-*tzen* geldituko dira borrokak.

Alde horretatik, gaurko euskararen ikuspegitik, PVC egituretan agertzen den *-t(z)en* morfema hurbilago dago adizki perifrastikoetako *-t(z)en* aspektu-markatik *-t(z)e + -n* egituratik baino.

Hori horrela izanik, aurreikusten da edozein hiztunek forma bera erabiliko duela aditz perifrastikoetan eta oharmen-aditzen osagarrietan, eta alderik izatekotan, horien eta inesibodun nominalizazioaren artean izango dela. Hortaz, baldin eta hiztun batek *irteten* forma erabiltzen badu egitura perifrastikoetan eta *irtetean* nominalizazioetan, hiztun horrek *irteten* forma erabiliko du oharmen-aditzen osagarrietan. Mendebaldeko hizkera askotan, esaterako, *botaten* forma erabiltzen da forma perifrastikoetan; nominalizazioa, berriz, *-kera* morfemaren bidez egiten da (*botakeran*). Orain arte esandakoarekin aurreikusten den legez, *-kera* morfemadun sintagma ohiko nominalizazioa (*-t(z)ea*) agertzen den testuinguruetan agertzen da soilik:

61. a. Jonek harriak botaten dauz.
*Jonek harriak {botatzen/*botatzean} ditu.*
- b. Jon jausi egin da harriak botakeran.
*Jon jausi egin da harriak {*botatzen/botatzean}.*
- c. Jon harriak botaten ikusi dot.
*Jon harriak {botatzen/*botatzean} ikusi dut.*
- d. Jon harriak botakeran ikusi dot.
*Jon harriak {*botatzen/botatzean} ikusi dut.*

Alderantzizkoa gertatzen da Arrasate eta Oñati inguruko hiztunek erabiltzen duten *-ketan* morfemarekin. Morfema hori *-t(z)en* morfema agertzen den testuinguruetan erabili ohi da (Erostarbe, 1994). Azterbide honek aurreikusten duen bezala, *-ketan* morfema oharmen-aditzen osagarri-posizioan ere ager daiteke; *-t(z)ean* morfema agertu ohi den testuinguruetan, berriz, hiztunek *-terakoan* edota *-ketarakoan* bezalako formak erabiltzen dituzte.

Hualdek eta Ortiz de Urbinak (1987) Postposizio Sintagmaren alde aipatzen duten beste argudio bat hauxe da: Iparraldeko euskalkietan eta Hegoaldeko forma arkaikoetan *-t(z)e* morfema hartzen duten aditzen perpaus osagarriek kasu genitiboa jaso dezaketela (berez, izenekin lotu ohi den ezaugarria). Hala ere, kasu genitiboarena ez da gairitu ezineko oztupoa *-t(z)en* aspektu morfematzat hartzeko. Baliteke hiztun batzuentzat *-t(z)e* morfema horrek ez hartzea (ageriko) deklinabide-markarik inesiboarekin lotzean —ezin dugu ahaztu mugetako

euskalkiek forma arkaikoei gehiago eusteko joera dutela—; hortaz, *Jon liburuaren irakurtzen ikusi dut* perpausa *Jon liburuaren irakurketan ikusi dut* egituraren parekotzat jo beharko genuke. Nolanahi ere, garrantzitsua da kontuan hartzea genitibodun egiturak onartzen dituzten hiztunek ere ontzat ematen dituztela kasu absolutibodunak, eta azken horiek hiztun guztiek ematen dituztela ontzat. Hala izanik, onartu beharra dago izatekotan, *-t(z)en* egitura bi ditugula, eta hiztun guztiek erabiltzen dutenak aspektu-marka islatzen duela.

Orain arte esandako guztiari erantsi dakioke bere baitan Konplementatzaile Sintagma biltzen duen $[-t(z)e] -n$ azterbideak (Hualde eta Ortiz de Urbina, 1987: 444) ez dituela aurreikusten Goenagaren (1984) proposamenak ere azaldu ezin dituen PVC egituren ezaugarriak (ikusi 2.2. puntua): aldeberekotasuna, Izaki Predikatuen gaineko murrizketa, denbora-adizlagun berezituaren gaineko murrizketa, mendeko aditzaren hautazko aurreratzea NZ hitzekin edota Konp-Sintagmaren espezifikatzailean NZ hitzak jasotzearen gaineko debekua.

Beste hizkuntza batzuei erreparatuz gero ere, ezagunak egingo zaizkigun datuak aurkituko ditugu. Hizkuntza horien artean ingelesa bera dugu; ingelesezko gerundioek eta progresiboek ez dutela jatorri bera azaltzean, hauxe dio Felser-ek (1999: 78): progresiboaren jatorria (hau da, oharmen-aditzen osagarrietan dugun *-ing* morfemarena) *on* eta *in* preposizioetan dugula, hots leku-preposizioetan, euskarazko inesiboaren kasuan bezala³⁰. Baina Felser-en lan horretan badugu adibide argiagorik; izan ere, liburuko bosgarren atalaren parte esanguratsu bat eskaintzen dio erakusteari zenbait hizkuntzako oharmen-aditzen osagarriak itxuraz baino ez direla Prep-Sintagmak; *leku*-preposizioa buru duten sintagmak, hain zuzen³¹.

Azkenik, Post-Sintagmaren azterbideak dituen gabeziez gain eta beste hizkuntza batzuetako Aspektu Sintagmekiko parekotasunez gain, Aspektu Sintagmaren alde egiteko beste arrazoi bi ere badaude: bata, arestian aipatu dudan ekonomia-aren hatsarrea; bestea, beste egitura batzuetako *-t(z)en* morfema nolabaiteko aspektu-markarekin (Hualde eta Ortiz de Urbina, 1987) edo Asp-Sintagmarekin lotu izana (Laka, 1991; Albizu, 2001; Elordieta, 2001; Haddican, 2004, 2005)³². Honekin guztiarekin ez dut inondik inora ukatu nahi *-t(z)en* morfemaren izaera konposatua, baina azterbide hori lotuago ikusten dut morfologia historikoarekin, gaur egungo egituren azterketa sintaktikoarekin baino. Hurrengo atalean erakutsiko dut nola erantzuten dien Aspektu Sintagmaren azterbideak orain arte ikusi ditugun ezaugarri eta eragozpenei.

30. Oharmen-aditzen osagarrietako *-ing* morfema progresibotzat hartzearen kontra ikusi Rosenbaum, 1967: 28.

31. Nederlandera eta alemanaren iparraldeko aldaera bat dira sakonen eta adibide gehiagorekin aztertzen dituenak; hala ere, "hizkuntza erromantze batzuk" ere aipatzen ditu, eta horien adibide gisa portugesa agertzen zaigu.

32. Bada Haddican-ek 2004an argitaratutako lanaren bertsio digital zaharrago bat (Haddican, 2001), eta bada alderen bat edo beste lan bien artean; esate baterako, 2001eko bertsioan ez du bereizketarik egiten *-t(z)en* morfemen artean eta Aspektu Sintagman kokatzen du morfema hori. Are gehiago, Hualdek eta Ortiz de Urbinak aztertu izan duten *ari* aditzaren osagarriko *-t(z)en* morfema Aspektu-morfema bezala agertzen zaigu (Haddican, 2001: 18). Aldiz, 2004ko bertsioan progresiboekin agertzen den *-t(z)en* morfema nominalizatutako lokatibodun egitura izatearen aukera jasotzen du (Haddican, 2004: 106, 12. oh.).

3.2. Euskarazko Aspektu Sintagma

Euskarazko Aspektu Sintagma deskribatzeko [Asp-S [aS [AS]]] egitura erabili dut Felser-i jarraituz³³. Denbora Sintagma baino egitura murriztagoa proposatzeak berez azaltzen dizkigu lehenengo atalean aipatutako PVC egituren ezaugarri batzuk. Esate baterako, perfektuzko markak (-i, -tu) eta aditz jokatuak Aspektu Sintagma menderatzen duten sintagmetan kokatzen baditugu, haien gaineko murrizketaren arrazoia argi gelditzen da³⁴. Bestalde, mendeko egituren Denbora Sintagmarik ez izatean, mendeko denborazko adizlagunak nahitaez jo behar du perpaus nagusiko denbora-sintagmara, hark zilegi dezan. Horregatik, mendeko egituren kokatutako denbora-adizlagunak perpaus nagusiaren gaineko baskadura izango du gehienetan. Horrela, Dnb-S bakarria izateak eragozten du kontraesankorrak diren denbora-adizlagunak agertzea:

62. a. **Udaberriro* irakurtzen ikusten nuen Miren iaz.
- b. *Goizero* irakurtzen ikusten nuen Miren iaz.

Bestalde, mendeko egituren denbora-adizlaguna agertu ahal izateak argi erakusten digu adizlagun hori Dnb-S baino sakonagoko egitura bati dagoela atxikita.

Felser-ek, Kratzer-i (1989) jarraituz, proposatzen du Egoera Predikatueta gertaera-argumentu bat (*E*) dugula Aspektu Sintagmaren espezifikatzailean³⁵. *E* argumentu horrek [Espez, Dnb'] gunera mugitu beharra dauka zilegitzeko (Felser, 1999: 142-147). Baina mendeko perpausetan gertatzen den bezala, mugimendu hori ezinezkoa denean, kontrol-harremana sortzen da perpaus nagusiko *E* argumentuaren eta mendekoaren artean (*E*-PRO). Horrek Aldiberekotasunaren azalpen sintaktikoa eskaintzen digu. Izaki Predikatuek, berriz, ez dute Aspektu Sintagmarik proiektatzen (Felser 1999: 141), eta horren ondorioa da Izaki Predikatuen gaineko murrizketa.

Ikus dezagun orain zein beste ezaugarri azal daitekeen azterbide honetan oinarrituta. Hasiera batean mendeko argumentu guztiak daude mendeko egituren kokatuta. Horrela, osotasunaren zergatia argi gelditzen da (63) adibidean ikusten den bezala. Subjektua PVC egituraren baitan biltzeak, gainera, oharmen-aditzak PVC egitura *osoaren* gaineko murrizketa ezartzea azaltzen du; horrela, behin betiko ixten da Gee-k (1977) irekitako eztabaida oharmen-aditzen osagarrien antzemangarritasuna dela-eta (ikus 1.11. atala). Aspektu Sintagmak, halaber, -*t(z)en* morfema kokatzeko gune egokia eskaintzen digu, aztertu ditugun beste proposamen batzuek ez bezala:

63. [_{Asp-S} *E*-PRO [_{aS} Jon [_{AS} atea ireki]] -*t(z)en*]

33. Johnson-ek (1991) proposatutako [_{μS} [aS [AS]]] egituren oinarritzen da Felser, eta μ -Sintagma Aspektu Sintagmarekin identifikatzen du. Euskararen kasuan, [aS [Asp-S [AS]]] egitura ere erabili izan da Aditz Sintagma deskribatzeko (Elordieta, 2001: 39; Albizu, 2001: 89). Elordietak Koizumi-k (1993) proposatutako [aS [O-Kmz S [AS]]] aipatzen du bere proposamena egiteko abiapuntu bezala. Deigarria da, hala ere, Johnson zein Koizumi ingelesezko egitura mota berean oinarritzea beren ondorioak ateratzeko.

34. Morfema horien guztien kokapenari buruzko beste azalpen baterako ikusi Etxepare 2006.

35. Antza denez, proposamen bera egin izan da beste bide batzuetatik abiatuta (Felser, 1999: 197, 5. oh.).

Hasierako egitura horretatik abiatuta, lehenik eta behin, mendeko aS-k erakarri egiten du aditzaren osagarria [Espez, a'] gunera, dela tasunak erkatzeko dela aS-ren EPP tasunagatik (Chomsky, 2000, 2001). Horrek, Felser-en egituran ez bezala, aS (edo a') gune bi proposatzera behartzen gaitu:


64. [_{ASp-S} E-PRO [_{aS} atea_i [_{aS} Jon [_{AS} t_i ireki]]] -t(z)en]

Azterbide hori, hala ere, ez da berria; Chomsky-k Aditz Sintagma txikia bikoizten duen egitura proposatzen du objektuaren igoera duten hizkuntzetarako (Chomsky, 1995, 2000, 2001).

Ondoren, mendeko egituran Denbora Sintagmarik bagenu, esperoko gence hark erakartzea mendeko subjektua; baina mendeko egituran ez dago Denbora Sintagmarik, eta ondorioz, subjektuaren mugimendua eragiten duen posiziorik ere ez. Aldiz, perpaus nagusiko aS posiziora heltzean, berriro aurkitzen dugu EPP indarra duen gune bat. Azterbide honen arabera, aS-k eskuragarri duen argumentu bakarra mendeko egiturako subjektua da, eta horrela [Espez, a'] posiziora erakartzen du (perpaus nagusian ere aS bikoiztea eraginez)³⁶. Mugitutako subjektuak posizio horretan erkatzen du kasua, eta horregatik agertzen zaigu PVC egiturako edozein subjektu ABS markatuta. Azterbide hau egokia bada, horrek erakusten du argumentuaren kasua ez dela erabakitzen argumentu hori egiturara txertatzen den gunearen arabera, baizik eta kasua zilegitzen duen gunearen arabera³⁷. Hona hemen deskribatutako mugimenduen irudikapena:

36. Badirudi objektua subjektua txertatzen den gunearen gaineko [Espez, a'] posizioan egoteak eragotzi egiten duela subjektuaren mugimendua zilegitzea, eta beharrezkoa dugula objektuak dislokazio-tasun bat izatea espezifikatzaile gune horretatik kanpo eramango duena subjektua mugitu denean (Chomsky, 2001: 28). Hala ere, objektuaren dislokazio-mugimendu hori azterketa sakonagoa behar duen gaia da, eta hemen aztertzen ari garenerako bestelako ondorioz ez duena; horregatik, nahiago izan dut alde batera utzi nahasgarri gerta zitekeelakoan.

37. Bestalde, argi dago kasua finkatuta gelditzen dela zilegitu ondoren, eta ez dela aldatzen nahiz eta kasua erkatu ohi duen beste gune batera mugitu; horren erakusle dugu [Espez, Inf'] posizioan kasu ergatibodun zein absolutibodun sintagmak agertu ahal izatea.



[_{aS} Jon_j [_{aS} X_S(Subj) [_{AS} [_{Asp-S} E-PRO [_{aS} atea_i [_{aS} t_j [_{AS} t_i ireki]]]] -t(z)en] ikusi]]]

Inflexio Sintagmaren proposamena aztertzean ere (2.3. atala) aipatu ditut igoeran oinarritutako ereduaren abantailak: nahikoa dugu ikustea PVC egiturako subjektuak zer mugimendu egiten duen perpaus nagusira egitura hauen zatigarritasunaren zergatia ulertzeko; izan ere, subjektua gainerako egituratik banatuta azaleratzen da. Hala ere, perpaus nagusiko aditzaren osagarriaren parte den heinean, bat egiten du oharmen-aditzaren osagarriaren gainerako egitura guztiarekin hala behar den kasuetan, osagarri osoa aditz nagusitik isolatuta azaleratzen denean esaterako (ikusi 1.1. atala). Bestalde, proposamen honek aukera ematen digu PVC egiturak perpaus nagusiko aditzarekiko duen komunztadura-harremana aurreikusteko:

66. Jonek zuek_i [t_i ... -t(z)en] ikusi zaituzte.

Komunztaduraren auziarekin lotuta, ikusi dugu PVC egitura biren koordinazioak subjektuen koordinazio bezala jokatzen duela komunztadurari dagokionez:

67. [Jon sagarra jaten] eta [zu igeri egiten] ikusi zaituztet.

Arazoa ez da berria eta *Right Node Rising* fenomenoaren bidez azaldu izan da (Napoli, 1993: 543). Koordinatutako egituretan errepikatutako elementua (kasu honetan, perpaus nagusiko aditza) ezabatu egiten da (68a). Aditzak komunztadura-egitura berriari egokitzea ere ohikoa da PVC egiturak ez diren beste batzuen kasuan ere (68b):

68. a. Jon sagarra jaten ~~ikusi du~~ eta Miren igeri egiten ikusi ~~du~~ ditut.
b. Jon hondartzara ~~joan da~~ eta Miren mendira joan ~~da~~ dira.

Aurrera eginez, ikusten dugu PVC egituren txertatutako NZ hitzak perpaus nagusiko [Espez, Konp'] posiziora mugitzea guztiz ulergarria dela Aspektu Sintagmaren azterbidean oinarrituta. Izan ere, mugimendu hori ezinbestekoa da, NZ hitzek ez baitute jasoko dituen gune egokirik PVC egituren baitan.

Oharmen-aditzen osagarrien ezaugarriak aztertzeak *pied-piping* mugimenduei buruzko datuak ere eskaini dizkigu. PVC egituren *pied-piping* mugimenduek subjektuari ez eragitea, eta aldi berean, subjektua ez izatea gai *pied-piping* mugimendurik eragiteko, berehala ulertzen da subjektu hori PVC egituratik kanpo badago:

69. a. Nor_i ikusi duzu zuk t_i [_{ASP-S} t_i egunkaria irakurtzen]?
b. [_{ASP-S} t_i zer irakurtzen]_j ikusi duzu Jon_i t_j?

Egin dezagun aurrera anafora-harremanekin. Esan bezala, perpaus nagusiko subjektua aitzindari egokia da PVC egiturako subjektuan kokatutako anaforarentzat. Ez dugu kontrakorik espero subjektu hori perpaus nagusiko [Espez, a'] gunean badago:

70. a. Mirenek_j [bere burua]_j ikusi du.
b. Mirenek_j [bere burua]_j [_{ASP-S} t_j egunkaria irakurtzen] ikusi du.

Eta espero zitekeen bezala, PVC egiturako subjektua aitzindari egokia da egitura horretan agertzen den aditzaren osagarriko anaforarentzat (71a). Perpaus nagusiko subjektua ez izatea aitzindari egokia PVC egiturako aditzaren osagarriko anaforarentzat (71b) subjektu eskuragarri hurbilenaren kontzeptuarekin dago lotuta³⁸:

71. a. Mirenek_j Jon_i entzun du [_{ASP-S} t_i [bere burua]_j deskribatzen].
b. *Mirenek_j Jon_i entzun du [_{ASP-S} t_i [bere burua]_j deskribatzen].

Azkenik, ezeztapenari buruz emandako datuak ditugu. Lehen aipatu dut Felser-i (1999: 49) jarraituz, PVC egituretan ez dagoela perpaus mailako ezeztapenik. Datu horren alde jokutzen duen adibide bat arestian aipatutako jokatu gabeko perpaus kontzesiboetan aurkitzen dugu. Ondoko adibideek erakusten duten legez, jokatu gabeko perpaus kontzesiboetako ezeztapenak oharmen-aditzen osagarrietakoak baino modu libreagoan joka dezake, eta mendeko aditzaren ezkerretara zein eskuinetara ager daiteke, PVC egituretan ez bezala:

72. a. [Jonek autoa ekarri ez arren] aurkituko dugu Gaztelugatxera joateko modua.

38. Eremu hurbilari buruz ikusi Artiagoitia 2000: 5. kapitulua, 3. atala. Uztardura Teoriaren A, B eta C Hatsarreei buruzko ikuspegi minimalistarako, ikusi Chomsky 1995: 2.5. atala.

- b. [Jonek autoa ez ekarri arren] aurkituko dugu Gaztelugatxera joateko modua.

Bestalde, perpaus mailako ezeztapena izango bagenu, esperoko genuke Ezezko Polaritatedun subjektua ere zilegi izatea (*inork aipatu ez izan arren...*), baina ikusi dugun bezala (1.7. atala), hori ez da posible oharmen-aditzen osagarrien baitan.

Ikusi dugu, halaber, PVC egituraren baitan agertzen den ezeztapena beti agertzen dela aditzari ezkerretik atxikita. Bestalde, ondoko adibideek erakusten diguten bezala, PVC egituren hitz-hurrenkerak ez du iradokitzen ezeztapena egitura goi-samarrean kokatutako ezkererako adarreztatze batean dagoenik, beste egitura batzuetan gertatu ohi den moduan:

73. a. Jonek ez du janaria prestatu.
b. [_{Konp-S} Jonek ez duela janaria prestatu] entzun dut.
c. [_{PVC} Jon janaria ez prestatzen] harrapatu dut.
d. * [_{PVC} Jon ez janaria prestatzen] harrapatu dut.
e. * [_{PVC} Jon ez prestatzen janaria] harrapatu dut.


Lehenengo atalean esandakoa gogora ekarriz, Felser-ek (1999: 179), Zanuttini (1991) aipatuz, bi ezeztapen mota bereizten ditu: perpausarena eta predikatua-rena. Azken horretan oinarrituta, oharmen-aditzen osagarrietarako (74)-ko egitura proposatzen du —hain zuzen ere van der Does-ek (1991) *ezeztapen ahula* bezala deskribatu izan duena—³⁹:

74. [_{aS} [_{adlag} ez] [_{a'} AS a]]

Euskarazko perpaus mailako ezeztapenaren gainean egindako proposamenetara etorrira, azterbide nagusi bi ditugu: bata, Lakarena (1991) eta bestea, Ortiz de Urbinarena (1993). Lakaren proposamenak Inflexio Sintagma menderatzen kokatzen du ezeztapena (Σ Sintagman); Ortiz de Urbinaren proposamenak, berriz, Inflexio Sintagmaren eta Aditz Sintagmaren artean. Hala ere, esan bezala, PVC egituretan agertzen zaigun ezeztapena ez dagokio perpausari, predikatuari baino. Hortaz, berdin zaigu *perpaus-ezeztapena* Inflexio Sintagma baino gorago ala beherago txertatzen den; printzipioz, Lakaren proposamena zein Ortiz de Urbinarena, biak dagozkio perpausaren ezeztapenari. Hala ere, aurrerago ikusiko ditugun arrazoiengatik (ikus 41. oh.), O. de Urbinak proposatutako ereduaren egokitza-pena erabiliko dut.

Baina (65)-eko egiturari begiratzen badiogu, ikusten dugu aS bi ditugula dagoeneko; hortaz, ezeztapena ere aS baten espezifikatzaile-posizioan egongo bada Felser-ek dioen moduan, hiru kokaguneren artean aukeratu beharko dugu —(75) adibideko A, B eta C—:

39. Bestalde, Haddican-en (2005: 188) ustez, Ezezko Polaritatedun Elementuak eta forma partitiboak agertu ahal izatea perpaus-ezeztapenaren aldeko zantzua dugu.



Aurrera egin aurretik, komeri da kontuan hartzea bi aukera ditugula ezeztapenaren eta Ezezko Polaritatedun Elementuen arteko lotura aztertzeko: A(rgumentu) berreraiketa bidez edo A berreraiketarik gabe; hau da, edo mugituko elementuak txertatzen diren gunean interpretatzen dira Forma Logikoan (berreraiketa), edo mugitu ondorengo posizioetan bertan interpretatzen dira (berreraiketarik gabe). Horrek bikoiztu egiten ditu kontuan hartu beharreko aukerak.

Har ditzagun lehenik berreraiketarik gabeko aldaerak. (A) kokaguneak eskaintzen digun hitz-hurrenkera ez da euskaraz aurkitzen duguna (**ez ariketak egiten*); (B) eta (C) kokaguneekin, berriz, hitz-hurrenkera egokia dugu (*ariketak ez egiten*), baina berreraiketarik ez egotera, ezeztapenak ezin izango luke Ezezko Polaritatedun Elementua zilegitu. Hortaz, badirudi berreraiketarik gabeko azterbi-deak ez digula aukera egokirik eskaintzen.


Aipatu dudan bigarren aukera berreraiketarena da. Azterbide horretatik abiatuta, (A) kokaguneak atzera egiten digu kale; izan ere, berreraiketa balego eta ezeztapena (A) gunean txertatuko balitz, ezeztapenak zilegitu ahal izango lituzke mendeko egiturako subjektuan kokatutako Ezezko Polaritatedun Elementuak. Beste horrenbeste gertatzen zaigu (B) aukerarekin. Azkenik, (C) aukerak emaitza egokiak eskaintzen dizkigu, bai hitz-hurrenkerari dagokionez, bai eta zilegitzeari dagokionez ere. Beraz, (C) aukera da ontzat eman beharko genukeena Felser-en analisiari hertsiki jarraituta.

Dena dela, bada oraindik argitu beharreko kasu bat: *lan egin* bezalako esamoldeena. Demagun —Lakak (1993) dioen moduan— *lan egin* bezalako aditz konplexuetan aditzaren osagarriko Izen Sintagma (*lan*) aditzaren osagarrian txertatzen dela, eta ez dela goragoko inongo posizioa mugitzen. Felser-en ereduaren araberako aurreikuspena da *in situ* motako osagarrien kasuan (*lan egin* bezalakoak) ezeztapena osagarriaren ezkerretara geldituko dela (76a), baina kasu horietan ere ezeztapena aditzari atxikita agertzea da ohikoena (76b)⁴⁰:

40. Nik neuk *ez lan egiten* hurrenkera ezgramatikaltzat joko nukeen arren, zenbait hiztunek onargarritzat dute. Jarraian hurrenkera hori ere azaltzen saiatuko naiz.

76. a. Mirenek Jon_i [_{AS} ez [_{AS} t_i lan t_α]] egi_α -ten harrapatu du.
 b. Mirenek Jon lan ez egiten harrapatu du.

Felser-en ereduaren arabera espero ez den hurrenkera honen berri emateko aukera bat honakoa dugu: mendeko AS menderatzen duen Ezeztapen Sintagma (ES) bat proposatzea, ezeztapena haren buruan dagoelarik:



Proposatutako egitura ikusten den moduan, aditza ez da Ezeztapen Sintagmaren burura mugitzen; gertaera hori erraza da azaltzen baldin eta ezeztapenak ez badauka aditzak erkatu beharreko tasunik —edo Chomsky-ren 2000 eta 2001eko proposamenaren bidetik, ezeztapenak ez badauka aditza erakartzea eragiten duen tasunik—⁴¹.

41. Bestalde, posible litzateke aditzak bat egitea ezeztapenarekin buruz buruko mugimendu horretan eta berarekin garraiatzea; kasu horretan, hitz-hurrenkera egokia lortzeko pentsatu beharko genuke ezeztapena buru-lehena dela Lakaren (1991) proposamenean bezala, eta ez buru-azkena Ortiz de Urbinarenean (1993) bezala.

Beste aukera bat dugu pentsatzea ezeztapena aditzari berari uztartzen zaiola halako egitura batean: [_{AS} ez A] eta aditzarekin batera mugitzen dela buruz buru. Kasu horretan, mugimenduen hurrenkera honakoa izan beharko litzateke —aditza argumentuen ostean mugitzeak saihestu egiten du uneren batean hari atxikitako ezeztapenak mendeko subjektua zilegitu ahal izatea; bestalde, buruz buruko mugimenduak argumentuen mugimenduen ostean gertatzea jadanik proposatu izan den zerbait da (Boeckx eta Stjepanovic, 2001; Chomsky, 2001)—:

- i. M₀. [_{AS} subj [_{AS} obj [_{A°} ez-A]]]
- M₁. [_{AS} obj_j [_{AS} subj [_{AS} t_j ez-A]]]
- M₂. [_{AS} subj_j [_{Asp-S} E [_{AS} obj_i [_{AS} t_j [_{AS} t_i ez-A]]] -t(z)en] A₂]
- M₃. [_{AS} subj_j [_{Asp-S} E [_{AS} obj_i [_{AS} t_j [_{AS} t_i t_α t_α] [ez-A]_α -t(z)en] A₂]

Hala ere, proposamen honi egin dakiokkeen kritika bat honako hau da: irtenbide “lexikalegia” eskaintzen digula; beste modu batean esanda, ez genuke alde semantiko nabarmenik esperoko “ez egin” eta “desegin” bezalako formen artean, eta argi dago alde hori badela:

- ii. a. Ariketa ez egiten harrapatu zuten.
- b. Ariketa desegiten harrapatu zuten.

Bestalde, esan bezala, hiztun batzuentzat onargarriak dira *ez lan egiten* bezalako hurrenkerak. Ikusi berri dugun azterbide horretan oinarrituta ere erraz dira aurreikusten. Izan ere, zenbait hiztunentzat *nork lan egin du gaur?* bezalako perpausak gramatikalak dira, aditza NZ hitzaren ondoren espero dugun arren. Kasu horretan, hiztunak [_A lan egin] aditz konplexu ez-ergatibo bezala interpretatzen duela ematen du. Hori horrela izanik, aurreikusten da hiztun horientzat ezeztapenak [_{ES} [_A lan egin] ez] egitura duela:

78. Mirenek Jon_i [_{ASP-S} [_{AS} t_i [_{ES} [_A t_α] ez]] [_{lan egi}]_α -ten] harrapatu du.

Beraz, Felser-en arabeko analisiaren arazoak ikusita, (77)-ko egitura emango dut ontzat ezeztapenari dagokionez.

Amaierarako utzi nahi izan dut Asp^o gunearen deskribaketa. Ikusi dugun legez, beste hizkuntza batzuetan aldatu egiten da buru horren edukia jasotzen duen [_± progresibo] tasunaren arabera. Euskaraz morfema bera agertzen zaigu Aspektu buruan, [+progr] tasuna izan zein [-progr] tasuna izan (ikus 1.9. atala). Bestalde, Artiagoitiak (1995: 136) eskaintzen dizkigun datuei erreparatzen badiegu, ematen du partizipio formak (-i, -tu, -n) eta prospektiboak (-ko, -go) ez zaizkiola progresiboa txertatzen den gune berean lotzen egiturari. PVC egituretan halako formak ezin agertzeak iradokitzen digu partizipioa eta prospektiboa progresiboa baino gorago txertatzen direla; proposamen hori ez dugu berria (Adger, 2003: 175). Nola liteke, orduan, *etorri* edota *etorriko* bezalako formetan ez agertzea *-t(z)en* morfema, [-progr] ere *-t(z)en* morfemarekin markatzen bada? Badirudi oharmen-aditzen osagarriena baino egitura konplexuagoetan, [+progr] dugunean Aspektu buruak *-t(z)en* marka ezartzen diola aditzari; baina egitura konplexuagorik ez badago, hau da, aditzak ez badu jarraitzen buruz buruko mugimenduan, [-progr] tasunak ere *-t(z)en* marka hartzen du.

Bestalde, oharmen-aditzen osagarriak aztertzeke bide hau zuzena bada, frogatuta gelditzen da perpausaren argumentuak Aditz Sintagman txertatzen direla eta han jasotzen dituztela theta-rolak, ez buru funtzionalen espezifikatzaile-posizioetan (Cheng eta Demirdache, 1993). Kasua, berriz, ez da erabakitzen argumentuak egiturari txertatzen zaizkion gunearen arabera, Levin-ek (1983) proposatzen duen moduan; aitzitik, behar diren mugimenduak gertatu ostean egituraren betetzen duten posizioaren arabera erabakitzen da, PVC egiturako subjektuak perpaus nagusiko objektuari dagokion kasua hartzeak frogatzen duen legez.

Horrenbestez, ikusi dugu 1. atalean deskribatutako ezaugarri guztiak azaldu ahal direla Aspektu Sintagman eta azterbide minimalistak proposatutako ekonomia-hatsarreetan oinarrituta.

4. Laburpena

Orrialde hauetan zehar, agerian geratu dira oharmen-aditzen jokatu gabeko osagarri konplexuak gainerako egitura menderatuetatik bereizten dituzten ezaugarriak. Ezaugarri horiek guztiak modu soilenean azaltzen dituen hipotesia Aspektu Sintagmarena dela ere ikusi dugu, beste zenbait aukera aztertu ondoren. Asp-Sintagmak menderatzen duen egitura horren azterketak, berriz, azaleratu egin ditu egitura konplexuagoetan hain ageriko ez diren hainbat gertaera; esate baterako,

-*t(z)en* morfema Aspektu-morfema bakar bezala aztertzeko nahikoa arrazoi dagoela, eta denbora-adizlagunak Dnb-Sintagma baino egitura sinpleagoetan ager daitezkeela Dnb-Sintagma batek egoki uztartuta badaude. Bestalde, atera ditugun ondorioen artean dugu euskarazko partizipioa eta prospektiboa bakarrik agertzen direla [\pm progresibo] tasuna jasotzen duen Aspektu burua baino egitura konplexuagoetan. Azkenik, argi gelditu da argumentuen kasua ez dela erabakitzen argumentua txertatzen den gunearen arabera, kasua zilegitzen duen gunearen arabera baizik.

Bibliografia

- Adger, D. (2003): *Core Syntax. A Minimalist Approach*, Oxford University Press, New York.
- Akmajian, A. (1977): "The Complement Structure of Perception Verbs in an Autonomous Syntax Framework", in P.W. Culicover; A. Akmajian eta T. Wasow (arg.), *Formal Syntax*, Academic Press, New York, 427-460.
- Albizu, P. (2001): "Sobre la distribución sintáctica de las formas finias del verbo vasco: condicionamiento léxico y sintáctico", *ASJU*, XXXV-1, 65-106.
- Arteatx, I. (2005)a: "Euskarazko Perpaus Jokatugabeak; -*t(z)en* perpaus osagarriak", EHUko eskuizkribua.
- , (2005)b: "Oharmen Aditzen Osagarriak", EHUko eskuizkribua.
- Artiagoitia, X. (1995): "Verbal projections in Basque and minimal structure", *ASJU*, XXVIII-2, 341-504.
- , (2000): *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- Barss, A. (1985): "Remarks on Akmajian's 'The complement Structure of Perception Verbs' and Gee's 'Comments on the paper by Akmajian'", *Lexical Semantics in Review* 1, MA: MIT Press, Cambridge, Massachusetts, 149-165.
- Bennis, H. eta Hoekstra, T. (1989): "Why Kaatje was not heard sing a song", in D. Jaspers *et al.* (arg.), *Sentential complementation and the lexicon. Studies in honour of Wim de Geest*, Foris, Dordrecht, 21-40.
- Boeckx, C. eta Hornstein, N. (2006): "The virtues of control as movement", *Syntax*, 9-2, 118-130.
- Boeckx, C. eta Stjepanović, S. (2001): "Head-ing toward PF", *Linguistic Inquiry*, 32, 345-355.
- Bošković, Z. (1996): "Selection and the categorial status of infinitival complements", *Natural Language and Linguistic Theory*, 14, 269-304.
- Burzio, L. (1986): *Italian Syntax. A Government-Binding Approach*, Reidel, Dordrecht.
- Carlson, G. (1980): *Reference to Kinds in English*, Garland, New York.
- Cheng, L. L. eta Demirdache, H. (1993): "External Arguments in Basque", in J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*, John Benjamins, Amsterdam, 71-87.
- Chomsky, N. (1993): "A minimalist program for linguistic theory", in K. Hale eta S. J. Keyser (arg.), *The view from building 20*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts, 1-52.
- , (1995): *The Minimalist Program*, MA: MIT Press, Cambridge, Massachusetts [gaztelaniazko bertsioa: Chomsky, N. (1999): *El programa minimalista*, Alianza Editorial, Madril].
- , (2000): "Minimalist Inquiries: The Framework", in R. Martin *et al.* (arg.), *Step by step. Essays on Minimalist Syntax in Honor of Howard Lasnik*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts, 89-155.
- , (2001): "Derivation by Phase", in M. Kenstowicz (arg.), *Ken Hale. A life in language*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts, 1-52.

- D'Introno, F. (2001): *Sintaxis generativa del español: evolución y análisis*, Cátedra, Madrid.
- Does, J. van der (1991): "A generalized quantifier logic for maked infinitives", *Linguistics and Philosophy*, **14**, 241-291.
- Eguzkitza, A. (1985): "Kontrol eta oharren aditzen jokabide sintaktikoaz", in J. L. Melena (arg.), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, EHU, Vitoria-Gasteiz, 981-985.
- Elordieta, A. (2001): *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, Doktorego-tesia, LOT series 47, Leidengo Unibertsitatea, Utrecht.
- Erostarbe, A. (1994): "Aditz izenak Oñatiko hizkeran", in R. Gomez eta J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua, ASJUren gehigarriak*, **28**, 495-517.
- Etxepare, R. (2006): "Number Long Distance Agreement in (Substandard) Basque", *ASJU*, **40**, 303-350.
- Felser, C. (1998): "Perception and control: a Minimalist analysis of English direct perception complements", *Journal of Linguistics*, **34**, 351-385.
- , (1999): *Verbal Complement Clauses. A minimalist study of direct perception constructions*, Linguistik Aktuell 25, John Benjamins, Amsterdam.
- Gee, J.P. (1977): "Comments on the Paper by Akmajian", in P. Culicover; A. Akmajian eta T. Wasow (arg.), *Formal Syntax*, Academic Press, New York, 461-481.
- Goenaga, P. (1984): *Euskal sintaxia; konplementazioa eta nominalizazioa*, Doktorego-tesia, EHU.
- , (1985): "Complementación y nominalización en euskara", *ASJU*, **XIX-2**, 493-567.
- Grodzinsky, Y. eta Finkel, L. (1998): "The neurology of empty categories: Aphasics' failure to detect ungrammaticality", *Journal of Cognitive Neuroscience*, **10-2**, 281-292.
- Haddican, B. (2001): "Basque Functional Heads", *Linguistics in the Big Apple: Working Papers in Linguistics*, New Yorkeko Unibertsitatea.
- , (2004): "Sentence polarity and word order in Basque", *Linguistic Review*, **21**, 87-124.
- , (2005): *Aspects of Language Variation and Change in Contemporary Basque*, doktorego-tesia, New York.
- Hornstein, N. (1999): "On control", *Linguistic Inquiry*, **30-1**, 69-96.
- Hualde, J. I. eta Ortiz de Urbina, J. (1987): "Restructuring with ARI", *ASJU*, **XXI**, 425-452.
- Iwakura, K. (1984): "Government theory and NP-ing constructions*", *Linguistic Analysis*, **15**, 31-54.
- , (1985): "The Binding Theory and PRO*", *Linguistic Analysis*, **15-1**, 29-55.
- Johnson, K. (1991): "Object positions", *Natural Language and Linguistic Theory*, **9**, 577-636.
- Kratzer, A. (1989): "Stage-level and individual-level predicates", in E. Bach; A. Kratzer eta B. Partee (arg.), *Papers on Quantification*, NSF Grant Report, Hizkuntzalaritza Saila, Massachusettsko Unibertsitatea.
- Koizumi, M. (1993): "Object agreement phrases and the split VP hypothesis", in J. D. Bobaljik eta C. Phillips (arg.), *Papers on Case and Agreement I*, MIT Working Papers in Linguistics 18, 99-148.
- Lafitte, P. (1944): *Grammaire basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*, Librairie Le Livre, Baiona [berrargitalpena: 1979, Elkar, Donostia].
- Laka, I. (1991): "Negation in Syntax: On the Nature of Functional Categories and Projections", *ASJU*, **XXV-1**, 65-136.
- , (1993): "Unergatives that Assign Ergative, Unaccusatives that Assign Accusative", *Papers on Case & Agreement*, **I**, 149-172.
- , (2004): "Ari progresiboaz: euskararen kasu markak", in P. Albizu eta B. Fernández (arg.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 111-132.

- Larson, R. K. (1988): "On the Double Object Construction", *Linguistic Inquiry*, **19:3**, 335-391.
- Levin, B. (1983): *On the Nature of Ergativity*, Doktorego Tesia, MIT, Cambridge, Massachusetts.
- Martin, R. (2001): "Null Case and the distribution of PRO", *Linguistic Inquiry*, **32-1**, 141-166.
- Meer, G. van der (1994): "Verbs of Perception and their complementation", *English studies*, **75-5**, 468-480.
- Napoli, D. J. (1993): *Syntax, Theory and Problems*, Oxford University Press.
- Odriozola, J. C. (1999): "Postposizioak EGLUn: egitura motak eta gramatika kategoriak", *Euskera*, **XLIV-2**, 841-863.
- Ormazabal, J. (1992): "Asymmetries on wh-movement and some theoretical implications", *ASJU*, **26/3**, 725-766.
- Ortiz de Urbina, J. (1987): "Perpauz ez-tenporalizatuak", in P. Salaburu (arg.), 49-64.
- , (1993): "Checking Domains in Basque and Breton", *ASJU*, **XXVII-3**, 751-775.
- Oyharçabal, B. (2002): "À propos d'un usage prédicatif particulier des pronoms personnels intensifs en basque", in M. Aurnague eta M. Roché (arg.), *Mélanges offerts au Professeur Jacques Allières*, 1. alea, *Domaines basque et pyrénéen*, Atlantica, Biarritz, 221-234.
- Rapaport, T. R. (1986): "Nonverbal Predication in Hebrew", *Proceedings of the Fifth West Coast Conference on Formal Linguistics*, Stanford Linguistics Association, Stanford, California, 207-217.
- Reuland, E. (1983): "Governing -ing", *Linguistic Inquiry*, **14-1**, 101-136.
- Rosenbaum, P. S. (1967): *The Grammar of English Predicate Constructions*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- San Martin, I. (2002): *On subordination and the distribution of PRO*, doktorego-tesia.
- Stowell, T. (1982): "The tense of infinitives", *Linguistic Inquiry*, **13**, 561-570.
- , (1983): "Subjects across categories", *The Linguistic Review*, **2**, 285-312.
- Suzuki, Y. (1991): "Small clauses as AgrP", in H. Nakajima eta S. Tonoike (arg.), *Topics in Small Clauses*, Kuroshio Publisher, Tokyo, 27-37.
- Ticio, M.E. (2006): "Locality conditions in Spanish DPs", in T. L. Face eta C. A. Klee (arg.), *Selected Proceedings of the 8th Spanic Linguistics Symposium*, Cascadilla Proceedings Project, Somerville, 137-153.
- Torrego, E. (1987): "On empty categories in nominals", eskuizkribua, Massachusettsko Unibertsitatea, Boston.
- Tullio, A. di (1998): "Complementos no flexivos de percepción física en español", *Verba: anuario galego de filoloxia*, **25**, 197-221.
- Txillardeggi (1978): *Euskal Gramatika*, Ediciones Vascas, Bilbo.
- Wyngaerd, G. van den, (1989): "Verb projection raising and the status of infinitival complements", in D. Jaspers *et al.* (arg.), *Sentential complementation and the lexicon: studies in honour of Wim de Geest*, Foris, Dordrecht, 423-438.
- Zanuttini, R. (1991): "Syntactic Properties of Sentential Negation: A Comparative Study of Romance Languages", doktorego-tesia, Pennsylvaniako Unibertsitatea.

